

Berrigara



Berriz ere bai euskarari

Akordio sozial eta politikoa bultzatzen



MARKIEGI
autoak



Leizeaga 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa) Tf 943 76 35 09



VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**


SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK



902 202 502

"...seeing in the rain"
("European ikusten")

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943761575
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 943792995
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp
Tel. 943889988
ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943200522
EIBAR


MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de la Esmaltería, 7
Tel. 943517811
ERRETERIA



zeren eta MultiLens[®] ukipen-lenteen
packa erostean, zira alderangarri
hau oparituko baitzugu.

14.900 pta. besterik ez



P.B.S. Nº 427/96

**BAUSCH
& LOMB**



**ORDAIN EZAZU HIRU
HILABETEAN ETA
INOLAKO
GAINKARGURIK GABE.**



**LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
«TRAVEL CLUB»
PROGRAMAKO
PUNTUAK.**



Maltzaga-Gasteiz, galderak eta harridurak

Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Gaur ez gara hasiko esaten garestia dela, egundoko triskan-tzak egingo dituela, eskupekoak dabilzala eta horrelakoak. Ez.

Jo daigun amaituta dagoela 1. zatia: Bergara-Maltzaga, laster hastekoa omen dena. Nork hartuko du autopista hori Amilagan Maltzagara joateko, 200 edo 300 pezeta ordainduta, ia denbora berdinean egiten bada bide normala? (peajeetan bi aldiz geratu gabe). Kontu izan ez dela atasko handirik izaten zati horretan.

Jo daigun Etxegarateko bikoizketa amaituta dagoela (hasita daude; ordua zen). Nork hartuko du Gasteizen, Donostiara edo Frantziara joateko, Maltzagako autopista, bi mila pezeta ordainduta, denbora eta bide berdintsua badauka N-1etik joanda?

Jo daigun Bergaran edo Arrasaten gaudela eta Donostiara joan nahi dugula. Nor joango da Maltzagako autopistatik, Deskargatik joan ahal izanda? Eta, batez ere, Deskargako tunela eta hobekuntza egiten denean, aginduta dagoen bezala.

Eta galdetzen eta harritzen hasita, galdetu daigun zergatik ez duten 2009 urtera arte Deskargako tunela egingo. Zergatik dagoen Epeleko bide ederra basoaren kontra txoke eginda, geldi. Zergatik Beasain-Durango bide lasterra —hain beharrezkoa gure eskualderako— dagoen hasita eta lagata.

Garbi dago autopista, egingo balitz, ia bakarrik Gasteiz aldera joateko erabiliko genukeela. Eta eskualdeko jen-

dea ibiliko litzatekeela gehienbat, ez trafiko internazionala. Tontoak dira ba kamioidunak! Autopista-jabeak ahaleginduko dira, hori bai, turistak despistatzen bide-seinale gezurtiek.

Gure eskualdeak behar du Urbinatik Maltzaga arteko bide on bat. Hor dago Gatzaga-Landa proposamena, hamar aldiz merkeagoa, eta gure preminetarako egokiagoa. Hori edo antzerakoren bat ezin ote daiteke adostu datoen diputazioetan?

Baina autopista? Ez da oso argia izan behar honelako obra bat guztiz defizitariora dela ikusteko. Baina ez zaio ardurara! Gipuzkoako Errepide Diputatuak aurkitu du formula majikoa: beste 40 urtez luzatu Bilbao-Behobiako peajea eta diru horrekin finantziatu "gure" autopista. Geniala!

Duda bat geratzen zaigu, hala ere. Autopista egin nahi da prorroga luzatu ahal izateko ala prorroga luzatu nahi da autopista egin ahal izateko? Ez dakit ulertzen didazuen. Ez harritu, nik ere ez dut ezer ulertzen eta.

Hau eskandalu bat da! B

*"Gure eskualdeak behar du
Urbinatik Maltzaga arteko
bide on bat.*

*Hor dago Gatzaga-Landa
proposamena, hamar aldiz
merkeagoa, eta gure
preminetarako egokiagoa"*

■ barruan



Luis Mari Elizalde

EHUko irakaslea

*"Escolako haurrak
motibatzeke faktore
nagusia irakaslea
izaten da"*

8. orrialdean.



Iñigo Almorza

Herri-kirolaria

*"Jendeak ez du herri-
kirola ezagutzen eta
batzuen artean ospe
txarra ere badauka"*

21. orrialdean.



J. Kalboetxeaga

Kamioilaria

*"Oso sukaldari
txarra naiz, baina
mutur fina gutxi
jatekoa izan arren"*

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1976. Azaroaren 27an inauguratu zen Errege Mintegian, haur paralitiko zerebralen tratamendu integralerako Deba Garaiko zentrua.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1903. Azaroaren 25ean Sabino Arana Goiri hil zen, 38 urte zituela.

1934. Azaroaren 27an El Diario Vasco agertu zen Donostian.

1976. Azaroaren 29an Joxe Mari Arizmendiarieta apaiza, Arrasateko kooperatiben sortzaileetakoa, hil egin zen.

MUNDUAN GERTATUA

1811. Azaroaren 23an Cadizeko Gorteen Loteria Nazionala onartu zuten.

1928. Azaroaren 23an Espainiako Futbol Liga hasi zen.

1969. Azaroaren 24an Apolo XII.a espaziuntzia, Conrad, Bean eta Gordon astronautak bertan zihozazela, Lurrera itzuli zen Ilargian egon ondoren. Gizakiak Ilargia zapaltzen zuen bigarren aldia zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzatza 20

13-22-29-35-41-43 (osag.15/er.4)

Astelehena 23

13-22-27-31-34-46 (osag.44/er.0)

Martitzena 24

1-21-27-36-41-42 (osag.48/er.5)

Eguaztena 25

14-22-24-41-47-48 (osag.49/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 21

4-15-17-21-32-34 (osag.28/er.7)

Domeka 22 Gordoia

6-21-25-41-45-49 (osag.37/er.5)

ONCE

Eguakitzatza 20: 33.257 (K. seriea: 106)


Astelehena 23: 55.265

Martitzena 24: 29.280

Eguaztena 25: 44.002

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak izango dira nagusi eta euria egingo du tarteka. Zapatuan tenperatura epelagoak izango ditugu, baina domekan hoztu egingo du eta 1.300 metrotik gora elurra egin dezake. Haizeak ipar-mendebaleetik joko du arin.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: azaroak 27



Ilbete: abenduak 3



Ilbehera: abenduak 10



Ilberri: abenduak 18

Eguzkia

Domeka, azaroak 29



Sortu: 08:19



Gorde: 17:51

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 19	10	-1	-
Eguakitzatza 20	12	-1	-
Zapatua 21	9	-2	-
Domeka 22	10	-6	-
Astelehena 23	9	-3	0,6
Martitzena 24	9	3	8,5
Eguaztena 25	10	8	35,4


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Amabiko-aundi

Kartuxo normalak botatzen dituen eskupeta.

- Amabiko-aundixakin bota zotsan bi tiro.



JOSU OKINA



Iñaki Elkorbarrutia
Azaroaren 26an 12 urte. Urte askotarako! Itziar, Felix, lone eta Alen.



Ainhoa Narbaiza
Azaroaren 29an 6 urte. Urte askotarako! Itziar, Felix, lone eta Alen.



Aritz Balda
Azaroaren 23an 13 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Xabier Diaz
Azaroaren 30ean 2 urte. Urte askotarako! Gurasoak.



Jennifer Pineda
Azaroaren 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Andoni Cuesta
Azaroaren 28an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

Farmaziak

Eguakitzatza 27:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 28:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 29:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 30:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 1:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 2:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 3:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 29: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 58
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 90
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Aintzane Gabilondo
Azaroaren 29an
6 urte. Urte askotarako!
Aita eta ama.



Mila Lizarralde
Azaroaren 27an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Senarra eta seme-alabak.



Maddi Elortza
Azaroaren 30ean
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ixone Barrutia
Azaroaren 22an
17 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Erika Fernandez
Abenduaren 1ean
17 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Jose Luis Urzelai
Azaroaren 28an
34 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Inclan
Azaroaren 20an
12 urte. Urte askotarako!
Familia.



Julen Eguren
Azaroaren 23an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Saioa Bolibar
Azaroaren 23an
18 urte. Urte askotarako!
Bergarako nesken futbol taldea.



Sara Mancho
Azaroaren 20an
urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak eta lagunak.



Asier Taboada
Azaroaren 22an
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Urresti
Azaroaren 25ean
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Endika Mata
Azaroaren 21ean
urtebetetzea. Urte askotarako!
Familia.



Raket Alonso
Azaroaren 28an
12 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak eta Markos.



Jone Muruamendiaraz
Azaroaren 24an
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Inma Esnaola
Azaroaren 17an
13 urte. Urte askotarako!
Ahizpak eta gurasoak.



Olatz Diaz
Azaroaren 21ean
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



Mari Paz Carriet
Azaroaren 21ean
32 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Larrañaga
Azaroaren 19an
20 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Urki
24an 6 urte. Urte askotarako!
Juan Mari, Rosarito, Eider eta Itxaro.



Itsaso Erdabide
Azaroaren 25ean
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Maider Zabaleta
Azaroaren 25ean
20 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Gomez
Azaroaren 3an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Familia.



Iñaki Aranzabal
Azaroaren 21ean
16 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Fernando Urbina
22an 64 urte. Urte askotarako!
Emaztea, seme-alabak, Ander eta Mikel



Juan Perez
Azaroaren 21ean
52 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Lorena Elexpuru
Azaroaren 26an
urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak eta aitona-amonak.



Amaia Gallastegi
Azaroaren 18an
2 urte. Urte askotarako!
Familia.



Eusebio Martinez
Abenduaren 6an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Martinez
Abenduaren 1ean
7 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Nerea Goenaga
Azaroaren 22an
10 urte. Urte askotarako!
Familia.



Ion Zangitu
Azaroaren 30ean
7 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Maria Gurrutxaga
Azaroaren 19an
89 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Angel Peña
Azaroaren 18an
38 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



M. Jose Rodriguez
Azaroaren 16an
25 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Maiztegi
Azaroaren 26an
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



Pello Otaño
Azaroaren 29an
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Elorza
Azaroaren 24an
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.

ESKER ONA

Joaquin Asiain Erro

Iruñean hil zen
1998ko azaroaren 17an,
57 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA

Emilio Rios Alvarez
Azaroak 18, 79 urte
Angel Agirre Gonzalez de Durana
Azaroak 23, 76 urte
Felisa Dobao Cobelo
Azaroak 25, 77 urte

jaioetakoak

BERGARA

Unai Zubizarreta Agirrezabal
Azaroak 11
Harri Otermin Bergaretxe
Azaroak 16

ANTZERKIA

► **Koldo Amestoyren** "Apanize" antzezlan gaur, eguakitza, 21:30etan Azpeitiko Enparan dorretxean. Bihar, zapatua, Goizeko Izarra taldearen "Ama Pasota", 21:30etan Zelaitxo antzokian.

► **Andaluziako Laviebel taldearen "Hotel Calamidad"** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Exploited** taldearen kontzertua bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Beart-ek Eginen alde** antolatutako erakusketa Kultur Etxean domekara arte.

► **Itziar Albisuaren** oleo erakusketa Nahikarin.

► **Zentral colikoei buruzko panel informatiboak** Pol-Polen datorren astelehenera. Eguenean gaiaren inguruko hitzaldia izango da.

IKASTAROAK

► ICTEK "Adinekoen psikopatologia" ikastaroa


KONTZERTUA

Adalberto Martinez organujolea

Noiz: zapatuan, 20:00etan
Non: San Pedro parrokian
Sarrera: doan

Udazken Kultureko programazioa aurrera doa eta bihar bigarren eta azken organu kontzertua jarraitzeko aukera izango da San Pedro parrokian. Estatuko organujole bikainenetakoa den Adalberto Martinez Solaesa malagarra izango da biharko gonbidatua. Madrileko Complutense Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua da eta Granadako Unibertsitatean, berriz, Musikologia doktoretza eskuratu zuen. Lortutako sarien artean, Madrileko Errege Kontserbatorioko ohorezko saria, karrera amaierako musika sari nazionala edota Avilako nazioarteko organu lehiaketako lehen saria aipa daitezke, besteak beste. Estatu osoan emanaldiak eskaini izan ditu eta European eta Japonian ere izan da kontzertuak edota graduatuei zuzendutako ikastaroak ematen. Madrileko Katedraleko organujol eta Errege Kontserbatorioko irakasle izan da eta gaur egun, oposizio bidez, Malagako Musika Kontserbatorio Nagusiko katedraduna da. Granadako Arte Ederretako Akademiako kidea ere bada.

Biharko egitarauari dagokionez, Martinez Solaesak honako pieza hauek interpretatuko ditu San Pedron: "Kanta eta dantza" (Guridi), "Andantinoa Re b-ean" (Lemare), "Re minorreko 1. sonata" (Guilmant), "Giza ahotsen koroa" (Lefebure-Wely), "Kontzertuko bariazioak" (Bonnet), "Ezkontza kanta" (Dubois), "Tocatta (Aves spes nostra suitea)" (J. Alfonso Garcia), "Aria" (Flor Peters) eta "Westminstereko karrilloia" (L. Vierne). B



A. Martinez, zapatuan 20:00etan San Pedron.

antolatu du abenduaren 10etik 18ra bitartean, zain-tzaileei eta senideei, osasun alorreko langileei edota etxetzeko laguntzaileei zuzenduta. Argibideak jaso eta izen-ematea telefono honetara deituz egin daitezke: 943 77 16 99.

LEHIAKETAK

► **Amodiozko gutunen VII. Berrigara Lehiaketa.** 1984an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Lanen luzera ezin izango izango da bi orrial-

de baino gehiagokoa izan. Irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak 40.000 eta bergarar onenak 25.000 pezeta. Lanak entregatzeko azkenengo eguna 1999ko urtarrilaren 13a izango da. Argibideak: 943 76 36 61 eta 943 76 08 19.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

► **Eskaparate lehiaketan** parte hartzeko izena emateko azken eguna astelehena. Argibide gehiago Kultur Etxean: 943 77 91 58.

DEIAK

► **Bideo emanaldia: "El día del juicio"**, Argentinako diktadura militarreko komandanteei egindako epaiketari buruzko dokumentala. Astelehenean, 22:15etan, Pol-Pol tabernan.

► **Hitzaldia: Amaia Vazquez psikologoak "Autoritatea-askatasuna"** gaiari buruz jardungo du eguaztenean, abenduak 2, 18:30etan Kultur Etxean. San Martin Agirre ikastetxeak antolatuta.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, abenduak 2, 18:30etan Seminarioan.

► **Jubilatuaren egun osoko irteera Lizarrara** domekan. Feria ikusi ondoren, bazkaria egingo da Iratxe hotelean. Izen-ematea (3.900 pezeta) Jubilatuetan. 943 76 21 40.

► **Joseba Jaka II. Literatur Bekak**, euskaraz sortutako olerki, eleberri, saiakera edota gazte-literatur lanei zuzenduta. Proiektuak abenduaren 19ra bitartean bidali ahal izango dira. Argibide gehiago 943 21 94 27 telefonon.

OHARRAK

► **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Bertan "Enseñanza"ko ikasleak agertzen diren argazkiak, eskurtsioetakoak, Mariaren Lagundia agertzen den garai bateko Bergarako argazkiak eta oraintsuagoak erakutsi nahi dituzte Horrelako argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie. Behin kopia atera ondoren orijinal guztiak itzuliko dira.

► **Udalak** jakinarazi nahi du trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

► **Ertamerikarako laguntza:** Oscar Romero solidaritate batzordeak eta Komite Internazionalistak taldeak Banco Guipuzcoanon eta Euskadiko Kutxan kontu korronte bana ireki dute.

KINTADAK

► **1975ean** jaiotako bazkaria abenduaren 26an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 01.2249862.9 kontu korronte zenbakian abenduaren 18a baino lehen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades **El hombre que susurraba a los caballos**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Los vengadores

Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

ARRASATE. Alai zinema

Algo pasa con Mary

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

La mascara del zorro

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena eguna: 19:00, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:00, 22:15.

EIBAR. Rialto

Barrio

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena eguna: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Barrio

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Charly & Louis (euskaraz)

Domeka: 17:00.

Laburmetraien eta

bideo-klipen selekzioa

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo

La sombra de la noche

Eguakitza: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00
Astelehena: 20:00.

EL HOMBRE QUE SUSURRABA...

Zuzendaria: Robert Redford.
Aktoreak: Robert Redford, Kristin Scott Thomas, Sam Neill. Nicholas Evans idazlearen nobela arrakastatsuan oinarritutako filmea. *Grace McLean* gazteak istripu larri bat izango du *Pilgrim* bere zaldiarekin. Istripuaren ondorioz, *Grace* ondorio psikologiko latzak jasango ditu eta bera sendatzeko bidea *Pilgrim* zaldia errekuiperatzea izango da. Hori lortzeko zaldiekin mirariak egiten dituen *Tom Booker* (Redford) deituko diote...

LOS VENGADORES

Zuzendaria: Jeremiah Chechik.
Aktoreak: Ralph Fiennes, Uma Thurman, Sean Connery. *Los vengadores* telesailak arrakasta nabarmena lortu zuen 1960ko hamarkadan eta orain pantaila handira iritsi zaizkigu *Steed* eta *Peel* (Ralph Fiennes eta Uma Thurman) bikotearen gorabeherak. Ministeritzak biak deituko ditu Ingalaterran gertatzen ari diren fenomeno bitxiak ikertzeko. *Sir Augustus De Wynter* (Sean Connery) Ministeritzako kide ohia susmagarrien artean dago.



BERRIGARRAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.


iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA
☎ 943 76 53 15

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...
Igardetan zabalik
enkargatuz gero



ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Telefonoak 943 76 20 07 - 943 76 42 57

San Martin ikastetxeko guraso taldeak antolatuta, Luis Mari Elizalde EHUKo irakasleak "Gure seme-alabak, beraien motibazioa eta ikastetxea" izenburuko hitzaldia eman zuen eguaztenezan Kultur Etxean. Elizaldek ikasleen motibazioa pizteko bideak azertu zituen herenegun.

G. Motibazioa eta "arrakasta eskolarra" lotuta al doaz?

E. Eskolan arrakastarik ez duen haur batek motibo gutxi ditu eskolan jarraitzeko. Emaitzarik ez baduzu, eta eskolak bueltatzen dizun mezua hori baldin bada ("ez dut balio"), nekez interesatuko zaizu eskola. Seguraski porrota gertatu aurretik motibazio falta egon daiteke. Irakasleok askotan ez dugu asmatzen eskolako ariketak motibagarriak gerta daitezela. Eta ikasleei ez bazaie erakargarria gertatzen han eskatzen zaien lana, nekez ikasiko dute. Hala ere, motibazio falta ez da izango beti porrotaren arrazoia, eta arrakasta duena ez da egongo beti motibatuta. Baina lotuta daude; gaizki ateratzen zaizkigun gauzetara ez gara bueltatzen, aisialdian behar bezala moldatzen garen zerbaitetan ibiltzen gara eta eskolan antzerako zerbait gertatzen da.

G. Zein adinetakoak motibatzen dira errez?

E. Adineko ezaugarrien arabera badira errezago motibatzen direnak. Txikitik gauzak erraz harrapatzen dira eta 7-11 urte bitartekoak zintzoak dira, dena interesatzen zaie eta jator jokatzen dute. 13-16 urtekoen artean, berriz, *desenkantu* kasu asko izaten dira eta eskolako gauzeekin baino gehiago kanpokoekin izaten dute interesa.

LUIS MARI ELIZALDE
EHUKo Irakasle Eskolako irakaslea

"Eskolan haurrak motibatzeke faktore nagusia irakaslea izaten da"



Elizalde naparra Donostiako Fakultateko didaktika sailean ari da lanean.

G. Noren esku dago motibazioa piztea?

E. Aldagai asko daude. Iharduera bera, objektu bat, eskaintzen den ariketa berez motibagarria izan daiteke, haurra bustinaren aurrean, puzzleak edo irakurketa adibidez. Irakasleak ere oso motibagarriak gertatu daitezke. Irakasle batek gustora lan egiten badu gustora

"Etxekoen zeregina interesa eta arreta erakustea, haurrei gaitasuna senti araztea eta beldurrak kentzen laguntzea da"

egote horrek erakargarri bihurtzen du berak eskaintzen duena, bere motibazioa kutsatu egiten zaie ikasleei nolabait esateko. Faktore nagusia irakaslea da. Irakasle sortzaile batek, metodo berri samarrak dituenak, sintonia errezekoa denak eta ikasleak banan-banan atentitzen dituenak motibazioa sortzen du.

Hala ere, gurasoek ere badute zeresana. Kaso piskat egiten badiegu haurrei, interesez eta arretaz entzuten baditugu euren eskolako kontuak, haurrek beraien eskolako gauzak inportanteak direla ikusiko dute. Horrek joera baikor bat sortzen du eskolako lanaren aurrean.

G. Etxean gurasoek zelako lana egin dezakete?

E. Ez da erreza. Etxekoen zeregina interesa eta arreta erakustea, haurrei gaitasuna senti araztea, erronka berri baten aurrean beldurrak eta susmo txarrenak kentzen laguntzea da, haurrek arrazionalizatzeko eta distantzia piskat hartu dezaten. Funtsean, gauzak egiteko gai badirela sinistarriz. Hori ez da adierazten esanez, ekintzetan baizik, jardunez eta konfiantza emanez. Gurasoengandik konfiantza somatzen ez badute nekez egingo diote aurre erronka berri horri.

Oso ohitura txarra daukagu, hezitzaile eta gurasoen artean gaizki egiten dena zuzentzeko. Inperatibo asko erabiltzen dugu, beti gabiltza zuzenketetan eta ikasleei ez die onik egiten. Horrekin batera beharrezkoa da norbaitek errekonozitzea ondo egiten duguna. "Ondo ari naizela, ondo egin dudala, saiatu naizela" somatzen badut inguruko artean hurrengo batean berriz ere ondo aritzeko arrazoia emango didate. B

Deba Garaiko urak garbitzeko 3.500 milioi etorriko dira Madriletik

Ur-depuradora eta kolektorea eraikiko dira Zubillaga inguruan

Deba Garaiko uren saneamendurako depuradora bat eta tunel bat jartzeko 3.500 milioi pezeta bideratzea onartu zuen joan zen egunean Madrileko Diputatuen Kongresuak, Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu jeltzaleak egindako jestionen ondorioz.

Diru kopuru honekin Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko ur zikinak garbitzeko depuradora bat eta 1.800 metroko tunel bat eraikiko ditu Gipuzkoako Uren Partzuergoak.

Depuradora non jarriko den erabakitzeke dago oraindik, baina seguruen Zubillagan (Oñati) jarriko dute. Depuradora ur zikinak eramateko 1.800 metroko kolektorea egingo da. Inbertsio honekin San Prudentzio baino gorago Deba



Mekolalden beste ur-depuradora bat jarriko da.

errekara isurtzen diren ur zikinak, hau da, 95.000 bat lagunek sortzen dituztenak, garbitu ahal izango dira. Depuradoraren kostua 2.250 bat milioi pezetako

izango da eta kolektorea eraikitzea, berriz, beste 1.000 milioi inguru kostako da. Depuradora eta kolektorea eraikitzeko lanak datoren urtean hasia aurreiku-

si du Victoriano Gallastegi Gipuzkoako Ur Partzuergo-ko presidentek eta lanak bi urteren buruan amaitzea espero dute.

Beste ur-depuradora bat Mekolalden

Bestalde, Gipuzkoako Ur Partzuergoak beste depuradora bat jarriko du Mekolalden, Narbaiza enpresaren ondoan, eta, bertan, Antzuola, Elgeta eta Bergarako urak garbitzeko dira. 1.300 milioi pezetako aurrekontua izango du eta 2003. urterako eraikita egotea espero dute.

Elgoibarren beste depuradora bat jarriko dute eta Deban martxan dago beste bat. Honekin, bospasei urte barru Deba erreko urak garbi joatea lortzea du helburu Gipuzkoako Ur Partzuergoak. B



Martin Garitanok egunkari berriari buruzko azalpenak eman zituen urrian.

Egin ordezkatu duen egunkariarentzat 12 milioi pezeta batu dira orain arte

Egin ordezkatu duen egunkari berria ateratzeko antolatutako diru-bilketan Bergaran 12 milioi pezeta batu dira azaroaren 23ra arte. Euskal Herrian 1.000 milioi batu nahi dira eta, horietatik, 17 milioi Bergarari dagozkio. Epea hil honen amaierara arte dago zabalik. Proiektu hau diruz lagundu nahi dutenek Artatse elkartetik pasa daitezke 19:00eta-

tik 21:00etara. "Baietz" Fundazioak "Bergarako herriak egunkari berriaren proiektuari eman dion erantzuna goraiatu" du. Bestalde, zapatu goiz honetan Eginen aldeko merkatu txikia jarriko da San Martin plazan. Herritarrek lagatuko materiala egongo da salgai eta, horretaz gain, taloak txorizoarekin eta sagardoa ere izango dira.



Kalegarbiketa zerbitzua kontratatzeko lehiaketa publikoa arautuko duen baldintza pleguak onartu ditu Udalbatzak.

Kalegarbiketa zerbitzua beste zortzi urterako kontratatuko da

Urte amaieran bukatzen zaio kontratua Garbilerari

Bergarako kalegarbiketa zerbitzua, kontenedoreak ipini, garbitu eta jasotzeko zerbitzua eta ur beltz eta euri-uren sarea, hustubideak eta putzu beltzak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza pleguak onartu zituen Udalbatzak. Kalegarbiketa zerbitzua kontratatzearen kontra azaldu zen HB. Beste zerbitzuak kontratatzeko baldintza pleguak aho batez onartu ziren.

Kalegarbiketa zerbitzua zortzi urterako kontratatuko

da 1999ko urtarriletik hasita eta aurkezten diren enpresek urtean 55.138.000 pezetatik behera lehiatu beharko dute. Azken urteetan kalegarbiketa zerbitzua Garbilerari enpresak egin du Bergaran eta orain arte egindako lanak egin beharko ditu aurrerantzean ere zerbitzua hartzen duen enpresak. Besteak beste, kaleak, bide publikoak, parke publikoak, komun publikoak edo orube publikoak garbitu. Paperontziak hustu, garbitu

eta behar den moduan zaintzea ere euren lana izango da. Bestalde, zaborrak batzeko kontenedoreak ipini, garbitu eta jasotzeko zerbitzua sei urterako kontratatuko da eta 3.860.000 pezetatik behera lehiatu beharko da. Azkenik, ur beltz eta euri-uren sarea, hustubideak eta putzu beltzak garbitzeko zerbitzua lau urterako adjudikatuko da eta enpresek 2.440.000 pezetatik beherako eskaintza egin beharko dute lehiaketan. B

Angiozarko frontoia egokitzeko lanak adjudikatu dira

Angiozarko frontoia estaltzeko, egokitzeko eta gradak eta aldagelak egiteko lanak Construcciones Suquia S.A. eta Imoel S.A. enpresen artean osatuko den UTEaren bidez adjudikatuko da 58.995.320 pezetan adjudikatzea onartu zuen Udalbatzak aho batez onartu astelehenean. Lanak egiteko lau hilabeteko epea izango du eraikuntza enpresak.

Datorren martitzena traste zaharrak ateratzeko eguna

Datorren eguaztaren lehena den martitzena, hilaren lehena dena, traste zaharrak ateratzeko eguna da. Hori dela eta, herritarrei jakinarazi nahi zaie martitzena gauean atera beharko dituztela trasteak.

Bestalde, zaborrak batzeko kanpaina delakoa, Mankomunitateak atarietan ipini dituen kartelak oker daude. Bertan adierazten da zaborrak 12:30etatik 13:30etara atera behar direla kalera, baina hori ez da zuzena, gaueko 9etatik 10ak bitartean atera behar baitira.

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

LONBIDE
ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Zazpi langile zauritu ziren San Antonion lan istripuan

Uhola errekaren ubideratze lanetan ziharduten zazpi langilek zauri arinak jasan zituzten martitzen goizean San Antonion, erreka-aren gainean zeuden langileentzako kasetak behera etorri zirenean. Uhola erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen tokian dagoen bobeda zaharraren gainean jarrita zeuden kasetak eta bobeda puskatu zenean lubiziak lau metro maldan behera eram zituen kasetak. Une horretan, zazpi langileak kasetak barruan gosaltzen ari ziren.

Lan istripua goizeko 9:45tan gertatu zen eta zaurituak Arrasateko ospitalera eramán zituzten. Sobrino eraikuntza etxeko zazpi langileek hainbat traumatismo eta kolpe izan zituzten.



Istripua gertatu zenean inor ez zegoen kaseten inguruan lanean.

Zazpi langileetako bi bergararrak dira: 54 urteko J.L.B.M. eta 34 urteko J.L.A.G. Lehenengoak klabikula hautsi zuen eta bigarrenak mokorrean kolpea hartu.

Uhola erreka-aren ubideratze lanak nahikoa bu-

ruhauste ekarri dizkie San Antonioko bizilagunei. Martokorako bidea itxita dago eta lanak atzeratuta doaz. Gertaera honek gehiago atzeratu ditzake lanak eta bertako bizilagunak eta Udala bera ere kezkatuta daude. B

LAB nagusi Udaletxeko hauteskundeetan

Sindikatuak hauteskunde prozesuan burubelarri murgilduta daude. Azaroaren 20an Udaleko langileek bozketa egin zuten euren ordezkariak aukeratzeko. LABek 4 delegatu lortu zituen eta ELAk 2, beraz, orain arteko ordezkari-tza bera lortu zuten.

Emaitzak honako hauek izan ziren: funtzionarioen artean, LABek 16 botu eta ELAk 5; teknikoen artean, LABek 20 eta ELAk 17; espezialisten artean, LABek 33, ELAk 7 eta UGTK 4. Guztira, hau izan zen emaitza: LABek 69 botu, ELAk 29 eta UGTK 4. 17 lagunek ez zuen botorik eman eta bina boto zuri eta balio gabeko zenbaitu ziren.

BANKU BERRIAK KRUZ GALLASTEGIN. Udaleko langileak Kruz Gallastegi aulki publiko zaharrak, hondatu samar zeudenak, kendu eta berriak jartzen aritu dira aste honetan. Udalak aurrekontuetatik kaleko mobiliarioa berritzeko hiru milioi pezeta inguru bideratuko ditu aurten.

Kaleko jarleku zaharren ordezkariak ipini, ez dauden tokietan jarri, zakarontziak ipini, ziburuak behar diren moduan zaindu e.a. egiten dira. Urtean 40-50 bat banku berri jartzen dituzte. Oraingoan, Kruz Gallastegiko eserleku zaharren ordezkariak, diseinu ezberdineko berriak jarri dituzte, Inaki San Jose Udaleko obra buruak esan digunez, "jarrita egoteko erosagoak direlako". Matxiategi eta Boni Laskurain kaleetan ere aulki berriak jarriko dituzte aurki.



IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Berrigara

345 zenbakia.
1998ko azaroaren 27a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitate: Kristina Romero.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza, **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: Berrigara/Xabi Gorostiaga.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekarria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

BI HANKAKO TXAKURRAK ANGIOZARRERA BIDEAN

Igandea, hilak zortzi, sei-tatik zazpi eta erdietara. Bergararik etxera gindoazela, Re-alaren garaipena zela-eta, zoriontsu. Argi urdinak bistaratu ziren. "Zer hostia dok hau, pikoluen kontrola?"

Gerturatu giñan, bai, gerturatu. "Metanse para la izquierda". Guk agindua bete. "Pueden apagar el motor y las luces, y salgan del coche". Hemendik aurrera era gutzieta eskaerak. "Documentacion". "Saquen todo lo que tengan en los bolsillos..."

Kotxe guztia miatu ondoren, gurekin hasi ziren. Niri Amnistia aldarrikatzen duen belarririkoa kentzeko agindu zidaten. Jarraikoak ginen edo inoiz izan garen galdetu ziguten. Kotxean zeuden Egin-en aldeko bonoak ikusi eta... "¿Cien pelas?, ¿Comprais esto?, ¡Vaya timo!"

Angiozarko alkatearen orientazio politikoa, zein partidutakoa zen e.a ere galdetu ziguten. Guk ez genekiela erantzun genien. "¡Pero, contestale!" (bultza eginez). "Ya le llamaremos a ver de que pie cojea".

Honela, bada, hogeita bost minutu leloarena egiten pasatu ondoren, aurrera jarraitzen laga ziguten.

Inongo arrazoirik gabeko kontrola, zeren eta ez zekiten bideak zer auzotara zeraman. Hau ez da oso logikoa.

Bake prozesuaren atarian egonik, hauek ez dute lekurik Euskal Herrian, egoera tentsioak sortzeko besterik ez dute balio.

Angiozartik eta Euskal Herriatik kanpora! Alde hemendik!

I.L.E. (NAN: 72.580.887)

EGUNKARI BERRIA

Baietz Fundazioko kideok, Bergarako herriak egunkari berriaren proiektuari eman dion erantzuna eta honetan jarri duen konfidantza goraiatu nahi ditu. Dakizueenez, Euskal Herrian 1.000.000.000 PTA batu behar ziren eta horietatik 17 milioi Bergarari dagozkio. Urriaren 9an egin zen UNEDeko aretoan lehenengo azalpen publikoa eta harrezkero bergara-

rok izan duzuen partehartzean 12.000.000 PTA.raino iritsi da azaroaren 23a barne.

Dirua batzeko epea azaroaren 30ean amaitzen da, beraz, proiektu aurrerakoi honetan parte hartzea merezi duela uste duzuenok, Artatse elkartean arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara egongo garelako ohartarazten dizuegu.

Bestalde, azpimarratu gizarite talde ezberdinek izan dituzten iniziatibak, adibidez, Bergarako BEART elkarteak antolatutako duen erakusketa Bergarako zenbait artistek adierazi diguten borondatea beraien lanak Kultur Etxean dohainik utzita, eskertu nahi diegu. Bestalde, orain hasi eta Gabonak arte antolatuko diren merkatu txikietan, pilotu partiduetan eta beste zenbait jardueretan parte hartzen gonbidatu nahi zaituztegu.

Egunkari berriak, Eusko Herriko Komunikabide esparrua zabalduko duenaren segurtasunarekin, parte hartu duzun horri edota hartzeaz zauden horri, Zorionak, zure ere bada eta argitaratzeaz dagoen munduan dagoen egunkari lagunduen.

Bergarako Baietz Fundazioa

tira biraka: alex ugalde

Koadro bakar bat ere saldu gabea nintzen bizitza osoan eta ez nuen uste aurrerantz ere salduko nuenik. Horregatik, zainak ireki nituen, etxea ur-hornidurarik gabe geratu aurretik. Eta ia hilda nengoelarik, musa bat agertu zitzaidan...



Hil zaitetz lasai, pintore kaskarra ez zarenez, urtebete barru milaka milioi ordainduko dituzte zure koadroengatik.



Esan beharrik ere ez: esaldia bukatu baino lehen hasia nintzen tornikete bat egiten.



■ atrebentzia ezpada

Datorren astean Durangoko euskal liburu eta diskoaren azoka zabalduko da. Baduzu irakurtzeko ohiturarik?



A. Blazquez

Egia esan, urtean gutxi irakurtzen dut, liburu batekin nahikoa izaten dut normalean. Gehienbat kontsultarako erabiltzen ditut libururuak, bidaietarako eta abar.



Silvia Jimenez

Bai, asko irakurtzen dut, igual hamar liburu urtean. Beldurrezko nobelak ditut atseginen. Liburutegira asko joaten naiz eta libururuak erosi ere egiten ditut.



Marixabel Oregi

Irakurtzen dut, pilo bat gainera. Normalean astero pare bat liburu hartzen ditut liburutegian. Azokan ere erosten dut libururen bat. Sarrionandia atsegin dut.



Publio Sanz

Ez daukat irakurtzeko zaletasunik; semeak liburu pilo dauka, baina nik ez dut irakurtzen normalean. Periodikoa bai, baina libururuak ez dut irakurtzen.



Manolo Martinez

Ez dut libururuak irakurtzen, egunkaria bakarrik. Denbora gutxi daukat libururuak irakurtzeko; lanetik irten eta beste gauza batzuk egiteko ditudanez, astirik ez...



Encarna Sevillano

Etxean badaukagu irakurtzeko ohitura. Nahi baino gutxiago irakurtzen dut, pare bat liburu urtean, *Circulo de lectores*-etik ekartzen dizkigutenak normalean.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Milagros Gantxegik zapatu gauean Udal Pilotalekuan Bergarako Orfeoak eta Opus III Percussion Ensemblek eskainitako emanaldiaren inguruan zerbait esan nahi izan digu. Berak dio emanaldi ederra eskaini zutela bi taldeek eta oso atsegina gertatu zitzaizela kontzertua. Abeslariak eta musikoak oso ondo egon ziren eta Orfeoiko zuzendari eta kide izandakoei eskainitako omenaldia beroa eta merezitakoa izan zen bere esanetan. Halere, kexa bat dauka: pilotalekuan hotz handia pasatu zuela. Sarreran ordaindutako 1.000 pezetak berogailua jartzeko nahikoa ez ote ziren galdetzen du Mila-rosek.

■ ikuspuntua: **jön altuna**

Haizea, euria eta hotza

Diktaduraren bat sufritu zuten, miseria eta desberdintasun soziala ondoren; armak erosten segitzen duen herrialde horietako bat da; bertan soilik bankuak zein agintari ustelak aberasten dira; pobraek pobreago, aberatsak aberatsago. Egonezinean, ordea, eguratseko aireak asaldatu eta haize handia sortu da. Lainoak ere negargura izugarriaz direnez, sekulako zaparradak izan dira. Mendia ere barrutik lehertu da eta sua jaurti. Milaka pertsona noraezean dira haize, euri, lurjauzi eta su artean harrapatuta, hil ez direnak, etxerik, jatekorik, ezer gabe.



hutzak hilda aurkituko duten toki berean. Todoterrenoan doa presidentea, eta emakume batek aurre egin dio jatekoa eskatuz, etxebizitza eskatuz, bere seme-alabentzat hezkuntza egokia eskatuz, indijenen kulturaren defentsa eskatuz, eta sozialismoa aldarrikatuz, giza legea hori dela eta hondasunak banatu egin behar


Kamarak hurbildu dira bertara. Europako hiri handienetako batean, kalean bizi den eskaleak dena batean ikusi ditu irudiak. Ondoren, kale bazterrean etzan da, hurrengo goizean

direla esanez. Baina todoterrenoa hiriburuko lokalik ederrenera iritsi da eta agintariak moketa lokatzaz zikinduz kopatxoa hartu eta hurrengo egunean golfean jolasteko zita egin du.

Epilogo. Ertamerikan gertatu da udazkenean, neguan Asian ur handitan itoko dira agian edo udaberrian Afrikan gosez hilko. Ordainduko dutenak, eta asko gainera, pobraek izango dira. Hondamendia gertatuz gero, hildako pila daudenean, kamarak bertan daudenean jasotzen dute laguntza, baina urte osoan dute beharra, negarra. Arazo handiena ez da hurakana, pobrezia baizik. Gaurko laguntzak gutxi balio du, egoera ekonomiko-sozialak tragedia handiagoa egin badu; hori aldatu behar da. Hortan laguntzeko prest... **B**

■ asteko menua: **artekale pizzeria-jatexea**

Fusilli rossa



LUIS ANGEL SANTIAGO
Artekale pizzeria-jatexeko sukaldaria

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 500 gramo espiral-pasta
- Litro laurden tomate-saltsa
- Litro laurden esnegain-likido
- Oliba-olioa
- 100 gramo York-eko urdaiazpiko

PRESTAKETA

- Pasta "al dente" egosi.
- York-eko urdaiazpikoa txiki-txiki egin eta zartagin batean oliba-oliotan frijitu. Ondoren, lehenengo tomate-saltsa eta gero, esnegaina gehitu eta guztia nahastu, arrosa kolorea hartu arte.
- Egosi dugun pasta gehitu eta sendotu arte sutan eduki.
- Amaieran, gatza bota.

■ adituen esanetan

Koloreterapia

LUPE GARCIA, *dermoestetizista*

Kolorearen tratamendua aspaldikoa da eta gure amonek ere erabiltzen zuten elgorria sendatzeko lanparatik zapi gorri bat zintzilikatzerakoan. Gaur egun koloreterapia bainuetxetan, medikuntza prebentiboan edota fisioterapia asko erabiltzen da, gero eta gehiago gainera eta modan dagoela esan daiteke. Maila animikoan zein estetikoan (gorputzean eta aurpegian) erabiltzen da nagusiki eta emaitzak oso onak dira. Foku edo kuarzo baten bitartez kolorea gorputzean aplikatzen da eta kolore horrek efekto ezberdinak izan ditzake gure gorputzarengan. Maila estetikoan, esate baterako, kolore lanran-

ja gorputza tonifikatzeko erabiltzen da, morea giharrak tratatzeko edota horia azaleko zelulak birsortzeko. Posibilitateak asko dira.

Akupuntura erabiltzen diren antzeko metodoak ere baliagarriak dira. Akupunturako puntutan, orratzarekin egin beharrean, kuarzoarekin (makina bati lotutako lapitz bat modukoa) kolorea aplikatu daiteke erlajatzeko edota dijestioa hobetzeko. Kromomusikoterapia (kolorea, musika eta masajeak biltzen dituen tratamendua) ere oso gomndagarria da stress arazoetan. Azken batean kolorea osasuna, bizitza eta edertasunaren iturria da. B

■ bergarako gordailutik

GURE AURREKO GURASO ZAHARRAK. I

Imanol Sorondo



xirondoko biztanleak 1348. urtean pasatu ziren Bergarar izatera. Egia esan, den-denak ez; horrela,

Iturbe abizeneko eta baserriko gizona eta sendia. Idazki honen asmoa bergarar berrien abizenak ipintzea da; era berean, baserrien izenak. Behin San Pedroko artxiboan nengoen ermiten arrastoak aurkitu nahian eta bir-idazki bat izan arren, ikaragarritzko zirrara egin zidan hainbeste oxirondotarren abizenak aurrez aurre aurkitzeak, eta hain zaharrak, 1348 urtekoak. Oinarri sendoagoa ematen dio norberaren izate ezagunari. Laburtzearen, ez ditut izenak ipiniko, ezta abizenak aurretik erdal modura idazten diren Martinez, Perez eta abar ere. Datorren asteko BERRIGARAN Uzarraga eta Antzuolakoen antzinako abizenak ipiniko ditut.

Batzarrean zeuden Galarditar Juan Gartzia, Bergarako alkatea, Larrartetar Juan Perez eta Galarzatar Martin Ibanez, zinezko gauzatzaileak, eta Ortiztar Fortun, arrasatear idazkaria. Hona hemen oxirondotarren abizenak eta askoren baserriak: Gallaitzegui, Iribe bere emaztea, Eguiguren, Basoa, Basalgaray, Eguiguren, Monasteriobide, Arismendi, Manabe, Olariaga, Arechavaleta, Amatiano, Barrutia, Munabe, Aguirrezabal, Albisua, Laraga, Irazabal, Irurio, Lamarianoko Uriarte, Irazabal, Narbaiza, Egurbide, Albisua, Ibarra, Unceta, Barrenechea, Orueta, Blanco, Lamariano, Sagastibarría, Ascargorta, Masusto, Palacio, Olariaga, Larrinaga, Lamariano, Bacestegui, Basalgo, Berasiartu, Urrupain, Rotalde, Burunano, Zabalotegui, Irazabal, Aguirre, Zupide, Aumategui, Zabalotegui, Errecalde, Eguino, Aguirre, Aizcoegui, Lesarri, Goenechea, Ascarate, Galardi, Garitano, Berecaibar, Garitano, Arregui, Ascarruns, Amilaga, Olabarria, Lizarralde.

Batzar honetan erantzungile bezala izenpetzen dutenak: Necolalde, Galarza, Castillo, Berasiartu, Uriscarreta, Gorriz, Castillo. Eta lekuko bezala: Ibarlucea, Goienaga, Roma, Ugarte, Mube, Arrizuriaga, Arana, Escoriaza, Narbaiza eta Iarituza. B



Pertxa txapeldun

Zapatu gauean elkarten arteko karta txapelketaren finalerdiak eta finala jokatu ziren **Santa Ana elkartean**. Bertan bildutakoek, afalostean, ekin zioten karta jokoari. **Hermanad Pertxak** eta **Pertxa elkarteak** jokatu zuten finala Santa Ana eta Goxope menderatu ostean. Finalean, Pertxa errez nagusitu zen, 3 eta 0eko emaitzarekin. **Benjamin Lazkano-Felix Mujika** (tutean), **Jesus Kalboetxeaga-Jose Mari Perez** (zortzi erregetako musean) eta **Jose Ramon Lozano-Agustin Lizarralde** (10 erregetakoan) izan ziren bikote irabazleak. Hirugarren tokian **Goxope** sailkatu zen eta **Santa Ana**, aurtengo antolatzailea, laugarren postuarekin konformatu behar izan zen. Txapelaldunaren trofeoa Pertxaren esku geratu da txapelketa bosgarren aldiz irabaztea lortu duelako.

Urrezko ezteiak

Santos Brizek eta **Candelas Salinerok** ezkontzaren urrezko ezteiak ospatu berri dituzte. 1947ko azaroaren 7an ezkondu ziren Candelas eta Santos Salamancako Anaya de Alba herrian eta aspaldi etorri ziren Bergarara. Zazpi biloba eman dizkieten lau seme-alaba dituzte eta duela biru aste, azaroaren 7an, guztiak bildu ziren egun gogoangarri bori ospatzeko asmoz. San Migelen meza entzun ondoren bazkaria izan zuten Lasa jatetxean. Zorionak!!



Haurren bozketa eguna

Begarako ikastetxeetako 8 eta 11 urte bitarteko ikasleek bozketa eguna izan zuten zapatuan. **UNICEFek** bultzatutako "**Haurren ahotsa**" kanpainaren barruan, gaztetxoek duela 10 urte onartutako haurren eskubide nagusietatik euren ustez garrantzitsuenak aukeratu beharra zeukaten. Udaltxeko sarreran jarritako hautestontzian 364 boto jaso ziren. **Familiari** eman zioten **boto gehien** (90 boto guztira), bakeak ere boto dexente jaso zuen (86) eta hirugarren preziatuena, berriz, osasuna izan zen (65 boto). Ikasleek, esan bezala, erantzun ona eman zioten UNICEFen bozketari.

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman)**, Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)**, 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala)**, 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak)**, Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika)**, Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel**, Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor**, Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLU BAL**, Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA**, Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto**, Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 57 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia**, Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIBAR Juan Mari**, Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA:** **GARCIANDIA Cristina**, Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOAK:** **DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren**, (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 943 76 05 77 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA**, Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier**, Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 15 • **AZPEITIA Irune**, Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier**, Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana**, Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber**, Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel**, Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA**, Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA:** **IGARTUA Julian**, Barrenkalea 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne**, Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu**, Herri Lagunak z/g. 943 76 43 29 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo**, San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA:** **MORAGUES Carmen**, Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39

DENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilaletkaria.
3. zenbakia. 1998ko azaroa.

Komertziala: Nerea Lazplur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Txos Azurmendi.
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.



MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ASEGINOLAZA AUTOAK. Urteaga 37. Bergara. Tf. 943 76 12 50

Opel Omega		1994	Full equipped	*7
Seat Marbella		1996	IK, 9.000 Km	*3
Ford Mondeo TD		1993	4 ate, IK, Airbag, IZ, KE, A	*6
Ford Escort TD		1996	Airbag, IZ, KE, IK	*6
Ford Orion D		1991		*3

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 806 ST 2.0			AG, IZ, KE, LD, Airbag	*7
Peugeot 406 Diesel			AG, IZ, KE, LD, Airbag	*7
Peugeot 306 Sedan 1.6			IZ, KE, LD, Airbag	*6
Peugeot 306 XN 1.4			LD, Airbag	*5
Peugeot 106 Sketch D			3 ate,	*4
Peugeot 106 Sketch 1.1			3 Ate	*4
Opel Combo Diesel			LD	*5

BERGARA AUTOAK. Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58

Mitsubishi Pajero 2.5 TDI	Ipintzeko	1992	AG, IZ, KE, IK, Suspentsio moldagarria	Kontsultatu
Mitsubishi Pajero 2.5 TD	Ipintzeko	1991	LD, IK	Kontsultatu
Opel Frontera 2.3 TD	SS-AP	1993	LD, IZ, KE	Kontsultatu
Ford Transit Luzea	SS-AH	1990	IK	Kontsultatu
Ford Courier 1.8 D	SS-AP	1993	IK	Kontsultatu
Audi 80 TDI Familiarra	Ipintzeko	1993	AG, LD, IZ, KE	Kontsultatu

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte *5: 1.000.000-1.500.000 PTA
*2: 300.000-500.000 PTA *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
*3: 500.000-750.000 PTA *7: 2.000.000 PTatik aurrera
*4: 750.000-1.000.000 PTA

Urrun-managailuen
kopiak egiten
ditugu!

Txorno
Auto-errekabioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN
Automobilaren
karburazio eta
elektronika **Airtel**

Urbarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

**AUTO DESGUACES
BERGARA**

943 76 35 47 (desguazaketa)
943 79 76 33 (otzaketa)

**BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA**

TXURRUKA AUTOAK S.L.

- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
BMW 325 TDS	Ipintzeko	1995	KL, ABS, Airbag	Kontsultatu
Audi 80 TDI	Ipintzeko	1992	KE, LD, IZ	Kontsultatu

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Ford Sierra	SS-Z	1987	4 ate, Km gutxi, Egoera bikainean	350.000
Audi 80 1.8 E	SS-AB	1988	KE, LD, IZ, Egoera onean	800.000
Citroen C15 Club	SS-AC	1988		Merkea
Citroen BX 1.7 TZD	SS-AM	1992	ABS, AG, 4 KE, LD, IZ, AH, LK	800.000
VW Santana TD	BI-AF	1984		Merkea

BLANCO TAILERRAK. Amillaga 22. Bergara. Tf. 943 76 17 35

Ford Escort RS Turbo	SS-AC	1988	AL, LD, Recaro Jarlekua ...	*3
Opel Corsa 1.2 S	SS-AG	1989	KE, IZ, IK, Oso ondo zaindua	350.000
Citroen BX 1.6 TRS	SS-U		IZ, 100.000 Km	150.000

CHAPIME TAILERRA. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 06 57

Ford Escort 1.8 D		1990	Zuria, 6 hilabeteko garantia	*3
Citroen BX 1.9 GTI		1989	Furio gorria, 6 hilabeteko garantia	*1
Citroen ZX 1.9 D		1993	Graphit gris, 12 hilabeteko garantia	*4
Citroen ZX 1.6 i Avant		1996	Zuria, 12 hilabeteko garantia	*5
Citroen ZX 1.4 i Tonic		1996	Griote gorria, 12 hilabeteko garantia	*5
Citroen BX 1.9 TGS		1990	Graphit grisa, 3 hilabeteko garantia	*1
Fiat Tempra		1990	Grisa, 3 hilabeteko garantia	*3
Citroen AX 1.1 TRE		1989	Marroia, 3 hilabeteko garantia	*1
Citroen AX 1.4 TZS		1988	Grisa, 3 hilabeteko garantia	*1
Fiat Uno Turbo IE		1990	Beltza, 3 hilabeteko garantia	*2
Opel Corsa 1.2 S		1990	Zuria, 3 hilabeteko garantia	*1
Renault 19		1989	Zuria, 6 hilabeteko garantia	*2
Citroen Xsara 1.9 TD SX		1997	Libel berdea, 12 hilabeteko garantia	*7
Citroen Xsara 1.9 TD SX		1997	Vega berdea, 12 hilabeteko garantia	*7
Citroen Xsara 1.9 TD LX		1998	Zuria, 12 hilabeteko garantia	*6
Citroen Xsara 1.6 i LX		1996	GPV urdina, 12 hilabeteko garantia	*6

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagnak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak

HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatuak **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak

KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak

LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

***1:** 300.000 PTara arte

***2:** 300.000-500.000 PTA

***3:** 500.000-750.000 PTA


***4:** 750.000-1.000.000 PTA

***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA

***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA

***7:** 2.000.000 PTatik aurrera

GARAJE MURILLO
Mekanika orokorra

 Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA

Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20


**ARRASATE
GARBIKETAK,
S. KOOP.**
AUTOZERBITZUA

- Autoa eskuz garbitzea
- Jarleku etatapizerien garbiketa
- Autoaren azterketa
- Mekanika orokorra
- Eta abar...

 Uribarri 20. Arrasate.
Tf. 943 79 52 76

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Citroen ZX 1.6 i Tentacion		1997	Zuria, 12 hilabeteko garantia	*5
Citroen ZX 1.6 i Tentacion		1997	Graphit grisa, 12 hilabeteko garantia	*5
Citroen Saxo 1.5 D		1998	Quartz grisa, 12 hilabeteko garantia, 4 ate	*5
Citroen Xantia 2.1 TD SX		1997	Vega berdea, 12 hilabeteko garantia	*7

GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikua z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 629 43 74 12

Land Rover 109 Especial			4 gurpil berri, Kolore berdea, Egoera onean	*2
Mercedes 250 S			Dena jatorrizkoa, Kolore beigea	*3
WV Transporter			Txapa eta mekanika ona, Margotu berria	*3
Mini Morris	SS-D		Dena jatorrizkoa, 80.000 Km, Kolore berdea	*2
Fiat Croma 2.0 i			Kolore gris iluna, Garantia	*3

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Nissan Patrol Canto 6 Cil.	SS-AG	1990	Garantia	1.500.000
Citroen Xantia 2.1 TD VSX	M-TH	1996	Garantia, Km gutxi	2.400.000
Citroen AX Diesel GT	SS-AJ	1990	KE, IZ, Estrak, 3 ate	550.000
Rover 820 Si	SS-AF	1989	AG, Estrak	Interesgarria

KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98

VW Golf 1.8	SS-AP	1993	LD, IK, IZ, KE, 5 ate	*5
Ford Courier 1.8 D	SS-AL	1991	IK	*2
Fiat Uno 70	SS-AC	1988	IK, IZ, KE, 3 ate	*2
Fiat Uno 70	BI-AU	1988	IK, IZ, KE, 3 ate	*2

LENIZ GARAJEA. Aingeru ibiltokia 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61

Renault Expres D Combi	SS-X			350.000
------------------------	------	--	--	---------

MARKIEGI AUTOAK. San Lorenzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09

Opel Ascona 2.0 iE	SS-Y		AH, Konpondutako motorea	*2
Ford Escort Fam. 16 V CLX		1993		*4

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatu KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTArate arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Orain helbide berria!

Amillaga 1, 4 pabilioia. Bergara. Tf. 943 76 33 00



TXOMIN GARAJEA



Tailer profesionala

Aprobetxa itzazu
 neguko kanpainako
 eskaintza bereziak!

Lizarraga auzoa. Antzuola.
 Tf. 943 78 70 77

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
MECA TAILERRAK. San Andres auzoa 8. Arrasate. Tf. 943 79 59 99				
Renault Laguna RT 2.0		1997	AG, IK	1.950.000
Renault Megane Clasicc Alize 1.6		1998	AG, IK	1.795.000
Peugeot 106 Rallye		1996	AG	1.300.000
Renault Express 1.4 Symbol		1990	IK	325.000
Citroen BX TZD 1.7 DT		1992	AG, IK	825.000

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44				
Ford Scort 1.4 Atlanta		1998	Full equiped, la berrìa	Kontsultatu
Ford Mondeo 2.0 i		1997	Full equiped	Kontsultatu
Ford Mondeo 2.0 TD		1997	Full equiped	Kontsultatu
Ford Mondeo 2.0 TD		1998	Full equiped, la Berria	Kontsultatu
Citroen ZX 1.4		1996	Full equiped	Kontsultatu
Ford Maveric 4x4 TD		1996	AG, Estra ugari	Kontsultatu
Toyota Land Cruiser 4x4 TD		1998	Full equiped	Kontsultatu

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74				
Opel Vectra 2.0 i GT	BI-BL	1992	AG, ABS, LD, KE, IZ, IK	Negoziatzeko
Opel Vectra 2.0 TDI	M-VS	1998	AG, ABS, Airbag, LD, KE, IZ, IK	Negoziatzeko
Opel Kadett 1.6 s GT	SS-AB	1988	IK, IZ, AH, AL	Negoziatzeko
Isuzu Tropper 4x4	SS-AJ	1990	LD, IZ, IK, 7 eserleku	Negoziatzeko
Fiat Croma 2.0 i 16V	M-OM	1993	AH, LD, AG, IK, IZ, KE	Negoziatzeko

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80				
Peugeot 205 Rallye	BI-AX			*2
Renault 25 V6 Turbo	C-AU		Full equiped	*4
Opel Vectra 16 V	SS-AK		Full equiped	*4
Opel Kadett 1.6	M-HW		5 ate	*1
VW Golf 1.6	SS-AF		3 ate	*3
Ford Fiesta XR2i	SS-AD			*2
Opel Vectra 2.0 CD	Z-AJ			*4
Citroen BX TD	SS-AL			*3
Ford Orion 1.6 Ghia	SS-X			*1
Fiat Uno 70 SX	SS-AH		5 ate	*2

TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa 8. Antzuola. Tf. 943 78 70 77				
Citroen AX 1.1	SS-AB		IK, 2 ate	*1
Land Rover 88 Especial				*2

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Ixigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

*1: 300.000 PTArate arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera



Euskara XXI. mendeari so

Kontseiluaren kanpainan 170 batzorde lanean Euskal Herrian

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" izenburuko kanpaina aurkeztu zuen urriaren hasieran Zamudion. Mende berri baten atarian, Kontseiluak euskararen normalizazioa lortzeko helburua dauka eta horretarako gizarte eragileei protagonismoa eman nahi die.

Orain dela 20 urte, 1978an, Euskaltzaindiak bultzatutako "Bai euskarari" kanpainaren leloari eutsi dio Kontseiluak. Euskararen Unibertsioa izeneko mugimendutik Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua jaio zen iazko abenduan Durangon. Euskalgintzan lanean ari diren 55 erakunde (euskara elkarte eta herri aldizkarien Topagunea tartean) sortutako elkargunea da eta horren inguruan 5.000 langile eta 100.000 bazkide biltzen dira. Erakunde guztien fakturazioa 50.000 milioi pezeta ingurukoa da. Euskalgintzaren historian inoiz bildu den talderik zabalena da Kontseilua.

Kontseiluak, XXI. mendeari begira, euskararen normalizazioa bizkortzeko,

akordio sozial eta politiko zabalak bultzatzea dauka helburu. "Bai euskarari" akordioak gizarte osoaren eta herritarren borondatea islatu nahi du euskarak XXI. mendean ere bizirik jarrai dezan. Logotipotzat Xabi Gorostiagak landutako eguzkia aukeratu da, erakunde guztiek bat egiterakoan sortzen duten indarra islatu nahirik. Kontseiluko arduradunek esan dutenez, "proposatzen dugun akordioak euskarak hain beharrezkoa duen garai berria abiaraziko du. Gizarte estamentu guztiek elkar hartuta, euskararen normalizazioa bermatuko duen prozesuarekin jarriko da martxan garai berri hori, hau da, 'Bai euskarari' akordioa sinatuz. Gizarteak izango du protagonismoa".

Goiko argazkian Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia eta Pili Kaltzada komunikazio arduraduna kanpainaren aurkezpen egunean.



Harrera beroa

Akordioa sinatu aurreko lehen harreman-erronda oso aurreratuta dago jadanik eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzetan, "hainbat gizarte erakundetatik jasotako atxekimenduekin hasierako aurreikuspenak erraz gainditu ditugu. Zenbait sektoretan harrera korrektoa espero genuen, baina uste baino beroagoa izan da eta sorpresa atseginak izan ditugu. Jasotako dirulaguntzak ere nabariak izan dira. Gizarte mailan giroa aldatu egin da azkenaldian eta hori ere kanpainaren mesederako izango dela esango nuke. ETaren su-etena eta hauteskunde ondoen, beste animo bat dago gizartearen eta faktore hori ere kon-

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua iazko abenduan jaio zen Durangon. Euskalgintzan ari diren 55 erakundek sortutako elkargunea da

tutan hartzekoa da. Ekimenaren aldeko giroa nagusitu da gizartearen. Kanpaina oso ondo doa, maila guztietan: bai komunikabideen aldetik eta baita herri mailako batzordeen aldetik ere. Euskal Herri osoan 170 batzorde inguru dira lanean eta jendearen parte hartzea eta ilusioa nabarmentzekoak dira. Erakunde, enpresa eta instituzioekin izandako bilerak ere bide onetik joan dira".

Akordioa sinatzeko aukeratu diren erakundeek gizartearen sektore guztiak ordezkatzen dituzte: enpresak, sindika-

tuak, alderdi politikoak, unibertsitatea edota kirolaren mundua. Kontseiluko ordezkariek 20 bat erakunderengana jodute dagoeneko eta guztiak "Bai euskarari" akordioa sinatzeko prest azaldu dira. Akordioaren sinatzaileek euskararen erabateko garapena helburu duen prozesuan murgiltzeko hitza emango dute. Hurrengo urratsak Normalizaziorako Plan Estrategikoaren diseinua eta gauzapena lirarteke. Xabier Mendigurenek esan digunez, "gizarte eragile as-

koren artean euskara normaltzeko Plan Estrategikoa egin beharko da, ikuspuntu objektibo batetik helburuak lortzeko eman beharreko pausoak zeintzuk diren aztertuz. Plan Estrategikoa egiteko Siadeco, Ikei eta LKS etxe espezializatuekin lan egingo dugu eta guztion arteko harreman estua ezinbestekoa izango da plana diseinatzerako orduan. Euskararen sektore guztietan bizi duen egoera zehatz-mehatz aztertuko da eta hortik abiatuta, lehentasunezko neurri normalizatzaileak finkatuko dira. Bo-

EKITALDIAK BERGARAN, ABENDUAN

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluk bultzatutako "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" kanpainari amaiera emateko, datorren abenduaren 26an Donostia, Gasteiz, Iruñea, Bilbo eta Baionako futbol zelaietan jaialdiak egingo dira eta bost estadioak telebista bidez lotuko dira egun horretan. Euskal Herrian sortutako 170 batzordetan milaka pertsona ari dira kanpainaren inguruan lanean. Bergaran ere Kontseiluko partaide diren erakunde, talde eta elkarteetako ordezkariek bildu dira: Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia Ikastola, EHE, Akulu AEK euskaltegia, Udal Euskaltegia eta Jardun elkarteak. San Martin ikastetxe eta Udaleko Euskara Zerbitzuko ordezkariek ere batzordean dira eta urriaren 28ko aurkezpenean adierazi zenez, batzordea herriko edozein talde edo elkarte jasotzeko prest dago.

Bergarako batzordeak, kanpaina zabaltzeaz gain, akordioaren hilabetea antolatuko du abenduaren 26a bitartean. Herriko batzordea abenduaren 18tik 20ra bitartean Bergaran egingo di-



ren ekitaldien programa zehazten ari da eguntan. Herritar guztiei zuzendutako ekintzak izango dira astebukaera horretan. Abenduaren 18an herriko ikastetxeetako ikasleek kalejira egingo dute eta zapaturako, besteak beste, umeendako jolasak, gaztainerreak eta erromeria antolatu nahi da Plazan. Zapatu gauean, berriz, EHEk herri afaria antolatzeko asmoa azaldu du eta afalostean herriko taldeekin jaialdia izango da. Azkenik, abenduaren 20an, domekan, elkarte gastronomikoen arteko baba-lehiaketa egin nahi da eta ondoren baba-jan herrikoia. Bazkalostean erromeria izango da eta

arratsaldean, azkenik, euren atxekimendua azaldu duten taldeek manifestu bat irakurriko dute Plazan eta kanpainaren irudien puzzle bat osatuko da. Bestalde, kanpainaren barruan, langile eta enpresariak lan-ordu bati dagokion soldata euskararen alde ematea lortu nahi da eta baliteke diru batzea urtarrilerako lagatzea, sindikatuak sasoi honetan hauteskunde sindikaletan murgilduta daude eta. B


rondatezko prozesua izanik, akordioaren sinatzaileek neurri horiek bakoitzaren egoerara eta erritmoetara egokitzeko konpromezua hartuko dute. Euskararen normalizazioan pausoak emateko giza egitura guztien artikulazioa behar-beharrezkoa da eta horretarako izango da Plan Estrategikoa. Herrialde bakoitzean dauden planekin elkarlanean aritu nahi dugu”.

Prozesu orekatua

Kontseiluko ordezkarien ustez, euskararen etorkizuna ziurtatu beharra dago oraindik eta euskararen garapenerako akordioa ezinbestekoa da. Xabier Mendigurenen arabera, “alde batetik euskararen normalizazioa prozesua bizkortu egin nahi da, baina bestetik oreka bat mantendu beharra dago. Ere mu batean aurrera egiteak ez du esan nahi aurrera goazenik. Esate baterako, irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatzen badugu eta gero haur horiek lan mundura heldutakoan erdaraz lan egin behar izaten badute, ez dugu aurrera egiten. Horregatik, prozesu orekatu bat jarraitu behar da, dauden hutsuneak betetz. Euskal Autonomi Elkartean ere oraindik hutsune nabariak daude, administrazio edota justizia

1978ko “Bai euskarari” kanpainak Euskaltzaindiarentzat egoitza berri bat erosteko diru bilketa jarri zuen martxan eta berehala gizarte osoaren atxekimendua lortu zuen. Hogei urte geroago, “Bai euskarari” leloa gizarte osora zabaldu nahi da. Euskarak normalizatu gabeko hizkuntza izaten jarraitzen du eta XXI. mendean egoera bestelakoa izatea lortu nahi da. Mendigurenen us-

Ezkerreko orrialdean, herriko Kontseiluko batzordearen aurkezpena, joan zen urriaren 28an. Abenduaren 26a bitartean hainbat ekitaldi izango dira Bergaran. Beheko argazkian, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkaria.




“Euskaldunok ugaldu egin gara azken 20 urteotan eta orain indar hori artikulatzea falta da, gizarte eragileei protagonismoa emanez” XABIER MENDIGUREN

mailan esate baterako. Komunikabideetan ere badago zeregina. Bestalde, lurraldetasunari dagokionez, Nafarroan eta Iparraldean euskarak ez dauka ofizialtasunik oraindik. Lan asko egiteko dago, sektore guztietan lan egin beharra dago, baina baikorrak izan behar gara”.

tetan, “orain dela 20 urteko lema bera erabili dugu baina oraingoan gizarteari zerbait ezberdina esan nahi diogu eta, horregatik, gizarteari protagonismo handiagoa eman diogu. Orduko eskerra generikoa zen eta orain konpromezu aktiboagoa eskatzen diogu gizarteari, euskalduntze soilak ez baitu euskara-

ren iraupena bermatzen. Euskaldunok ugaldu egin gara azken 20 urteotan eta orain indar hori artikulatzea falta da, gizarte eragileei protagonismoa emanez. Hemendik belaunaldi pare batera nahiko genuke euskara normalizatu egotea. Errealistak izan behar gara, hori ezin delako egun batetik bestera lortu. Indarrak bideratu eta epeak markatuz aurrera egingo dugu eta oso garrantzitsua da prozesua orekatua izatea gizartearen alde ezberdinak kontutan hartuz. Presarik gabe, baina etenik gabe aurrera egingo dugu”. B



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Ixamonix taberna

Bolu 30, behe. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

KAFETEGIA

BAIXO

PINTXOAK eta asteburuetan eta jaiegunetan **RABAK!**
Eta orain, zatoz **REAL**aren eta **ATHLETIC**aren partiduak ikustera!



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Zapatuan barruan

09:00: Moskis-HHH
 10:00: FAC-Urrutxurtu
 12:30: Jakina Patxaran Team-Ezinleike
 19:00: A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi
 20:00: Irubide Jatetxea-La Juve

FAC
 HHH
 Urrutxurtu
 Irubide
 Ortzi



KARLOS ROMERO
Errotagain

jokoz kanpo

Domekan barruan

09:30: Tom Cat Argandolas-Guadalest
 10:30: Uve Bikoitza-Agiñaspi
 11:30: Buya-Ufala
 12:30: Igandekoak-Ari Ari
 16:00: Pinturas Bergara-Amozkibar
 17:00: Patatus-Arbe Kirolak
 18:00: Jauja OH Zerezos-Errotagain
 19:00: Pagomendi-Bar Canalejas
 20:00: Bildurbarek-Mongatxurra

Uve Bik.
 Buya
 Igandekoak
 Ufala
 Patatus
 OH Zerezos
 Canalejas
 Bildurbarek
 Pagomendi

Domekan kanpoan

10:30: Txipiron-Ion Autoak
 11:30: SLP-Etengabe
 12:30: Agirrebeña-Matxakategi
 17:00: Sirimiri Eri-Mo(ko)lotov
 18:00: Usoa-Artusamak

Etengabe
 Agirrebeña
 SLP
 Usoa
 Sirimiri Eri

argi!

Partidu guztiak jokatu dira

Antolaketa Batzordeak iragarrita dauden partidu guztiak jokatu direla erabaki du. Ez da partidu gehiago atzeratuko. 10 minutu beranduago datorren taldeari, galdutzat emango zaio partidua.

HHH taldeari oharra

Batzordeak, HHH taldeari arbitratzerako garaian interes handiagoa jartzen ez badu, txapelketatik kanporatua izango dela ohartarazi nahi dio.

G. Nola joan dira orain arteko partiduak?

E. Lehen mailan, hirugarren postuan gaude. Joan zen denboraldian ere hasierako postuetan sailkatu ginen, baina ez genuen finala jokatzetik izan. Final laurdenetara iritsi ginen. Urtero antzera samar ibiltzen gara.

G. Jokalari berririk?

E. Bi jokalari joan dira eta hiru jokalari berri fitxatzea lortu dugu. Gehienok auzokideak gara, Bolukoak.

G. Talde banaketa ondo egin dela uste duzu?

E. Urte asko daramagu elkarren kontra jokatzetan eta jadanik guztiok ezagutzen dugu elkar. Taldeak nahastu egin beharko liriteke, maila ezberdinetako taldeen artean ere jokatu beharko liriteke partiduak. Gutxienez probatu, eta gero ikusi zer gertatzen den.

G. Zure taldeko jokalari batzuek jaso dituzten zigorrekin ados?

E. Antolaketa Batzordekoak zorrotze-giak izan dira. Arau gehiegi daude eta, gainera, urtero-urtero aldatzen dituzte. Normala da jendea nahastea. Askotan joko gelditu beharra egoten da arauak zeintzuk diren gogorazteko eta hori ez da ganora.

gora eta behera



Ufalak liderrari irabazi zion

Ufalak, hainbat astetan lehen postuan izandako Tom Cat Argandolas taldeari irabazi zion. Jardunaldi honek gol ugari ekarri ditu. Guadalest-ek, adibidez, 14 gol sartu zizkion Pinturas Bergarari.



Asteburuko zigorrak

Ufalako M.P jokalaria 2 partiduko zigorra jaso du aukaria astintzeagatik. Tom Cateko J.R jokalaria ere partidu bateko zigorra ezarri zaio arerioa astintzen saiatzeagatik. Mongatxurak taldeak 2 puntu gutxiago izango ditu, arbitratzeko taldekide bakarra agertzeagatik.

emaitzak

Bayer-Agirrebeña	3-3
Mo(ko)lotov-Jakina Patxaran Team	2-7
Ezinleike-Xurruapak	3-4
Urrutxurtu-Komando Piperrak	3-4
Amozkibar-Arbe Kirolak	3-5
Moskis-Patatus	6-4
Azpeitxi Jatetxea-A Ze Flaxa Etxagi	5-9
Matxakategi-Sirimiri Eri	1-5
Etengabe-FAC	3-4
Ion Autoak-Usoa	3-4
Artusamak-Irubide Jatetxea	6-3
La Juve-SLP	10-4
Ari-Ari-Amilotx	4-3
Errotagain-Pagomendi	1-1
Mongatxurak-Jauja OH Zerezos	5-9
Ortzi-Bar Canalejas	1-1
Ufala-Tom Cat Argandolas	5-1
Guadalest-Pinturas Bergara	14-1
Agiñaspi-Buya	2-3
HHH-Uve Bikoitza	1-3

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	17	7
2. Pagomendi	16	7
3. Errotagain	14	7
4. Azpeitxi Jatetxea	10	7
5. Bar Canalejas	10	7
6. Jauja OH Zerezos	9	6
7. Bildurbarek Opel/Lam	7	5
8. Ortzi	5	7
9. Shaktale	3	7
10. Mongatxurak	2	6

A multzoa

	P	J
1. FAC	21	8
2. Artusamak	19	7
3. Txipiron	15	7
4. Komando Piperrak	13	8
5. Urrutxurtu	12	7
6. Usoa	12	7
7. La Juve	8	6
8. Etengabe	7	7
9. Ion Autoak	5	8
10. Irubide Jatetxea	3	7
11. SLP	-3	7

B multzoa

	P	J
1. Guadalest	22	8
2. Tom Cat Argandolas	19	8
3. Uve Bikoitza	18	8
4. Arbe Kirolak	16	8
5. Moskis	15	8
6. HHH	13	8
7. Ufala	12	8
8. Agiñaspi	7	8
9. Buya	7	8
10. Pinturas Bergara	5	8
11. Amozkibar	3	8
12. Patatus	1	8

C multzoa

	P	J
1. Xurruapak	21	8
2. Ezinleike	19	7
3. Bayer	16	7
4. Sirimiri Eri	16	8
5. Jakina Patxaran Team	16	8
6. Agirrebeña Jatetxea	14	8
7. Ari Ari	10	8
8. Mo(ko)lotov	6	7
9. Amilotx	6	8
10. Matxakategi	4	8
11. Igandekoak	1	6



Erraztasunez irabazi zuten neskek

Bergarako nesken futbol taldeak 9-0 irabazi zion Urkiri. Partidu erraza izan zen Bergarakoentzat, hasieratik bukaerara arte nagusi izan baitziren. Lehen zatian, hiru gol egin zituzten eta ez zieten laga aurkariei euren aterra hurbiltzeko aukerarik ere; bigarrenean etorri ziren gainontzeko sei golak.

Bergarako neskek sailkapeneko sei eta zazpigarren postuen artean daude. Aurtengo denboraldian, lehendabiziko sei taldeek hurrengo fasera igotzeko aukera dutela kontutan izanda, asteburuan Aloña Mendi taldearen kontrako partidua erabakigarria izango da, izan ere, irabaziz gero, Bittor Agirrebarrena eta Ramiren taldeak sailkatzea lortuko luke.



Bigarren faseari begira

Kadete mailako mutilen eskubaloit taldeak joan den asteburuan eman zion bukaera lehen faseari eta berehala ekingo diote bigarrenari. Azken partidua Legazpiaren kontra jokatu zuten eta 21-23 irabazi. Legazpiarrek eta etxekoek maila berdintsua erakutsi zuten, baina azken hamabost minutuetan, Edu Iñarraren mutilek norgehiagoka aurrera ateratzea lortu zuten.

Ander Laborda eta Jon Zangitu izan ziren Bergarako taldean nabarmendu ziren jokalariek. Bosgarren postuan gelditu direnez, eta sailkatzerik izan ez dutenez, Gipuzkoako Kopa edo 2. fasea deiturikoa jokatu dute. Hasierako fasean, lehen 4 taldeak besterik ez dira sailkatu.



Garaipena behar

Ipar Center kadete mailako emakumezkoen saskibaloit taldeak 44-33 irabazi zion Oñatiri. Juan Rajadoren neskek zona defentsa erabili zuten lehen zatian eta ondorioz, oñatiarrek alboetan zeuden hutsuneak aprobetxatu eta saskiratze ugari egin zituzten. Bigarren zatian, berriz, jokoa aldatu eta banakako defentsa erabili zuten. Horrela, Bergarako taldeak aurre hartu zion Oñatikoari. Etxeko taldean saskiratze gehien egin zituen Enara Garcia izan zen.

Ondo baino hobeto etorri zaio garaipena Bergarako taldeari, une honetan bederatzigarren daude eta asteburu honetan lehendabiziko postuan dagoen Donostiako Arbelaitz taldearen kontra jokatu dute.

IÑIGO ALMORZA / Herri-kirolaria

"Jendeak ez du herri-kirola ezagutzen"

Aspalditik herri-kirolari amorratua da. Hainbat probatan parte hartzeaz gain, uda partean Elosu, Osintxu, Antzuola eta Bergaran antolatzen diren probataz arduratzen da beste lagun koادرila batekin batera.

G. Nondik datorkizu herri kirolerako zaletasuna?

E. Etxean betidanik gustokoa izan dute eta horregatik dela uste dut. Hamabi urte nituela harriak jasotzeko irrika nuen baina etxean ez zidaten lagatzen. Horrela, nik neuk enborzati bat hartu eta harria izango balitz bezala prestatu nuen, zulo eta guzti. Ikastolatik irten eta lagunak futboleant jokatzera joaten ziren bitartean, ni harriak

jasotzera joaten nintzen. Asko atsegin dut.

G. Herri-kirol gutxi egiten da gure bailaran.

E. Oso gutxi. Egiten diren saioak erakustaldi saioak izaten dira, batez ere. Jendeak ez du herri-kirola ezagutzen. Batzuen artean ospe txarra ere badauka, apustuen munduarekin lotzen dute eta, nahiz eta gaur egun noizbehinka bakarrik egiten diren apustuak. Jendeak herri kirola ezagutuko balu, gehiago animatuko litzakeela uste dut. Gogoratu bestela, San Martzial egunean zenbat jendek hartzen duen parte. Euskal Herriko kulturak sortutako kirola da eta poliki-poliki baztertzen ari gara.

G. Zenbat kilo ditu jaso du-

zun harri astunenak?

E. 100 kilo. Ez naiz handiagorik jasotzen saiatu ere egin. Helburua ez da hori. Antolatzen ditugun saioak guk geuk ondo pasatzeko, herri kirola sustatzeko eta inguratzen den jendea gustora egon dadin egiten ditugu. Gaur egun herri txikiak dira kirol mota hau lantzen dutenak. Gure bailaran ez dago batere zaletasunik.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Zarautz

Jubenil mailako mutilak
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Aloña Mendi

Lehen mailako kadeteak
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Arrasate

Bigarren mailako kadeteak
Domeka. 11:30. Ipintza

PILOTA

Bergara-Deba

Kadete mailakoak

Bergara-Aizarnazabal

Jubenil mailakoak

Bergara-Eibar

Junior mailakoak

Bergara-Arrasate

Senior mailakoak

Denak 19:30etan Pilotalekuan

PROFESIONALAK

4 1/2ko

Euskadiko txapelketa

- Arretxe-Errasti
- Errandonea-Uhanue

Binaka

- Koka eta Rai
 - Agirre eta Imaz
- Zapatua. 17:00. Pilotalekua

SASKIBALOIA

Bergara-Asteasu

Kadete mailako neskak
Domeka. 12:15. M. Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Zestoa

Jubenil mailako neskak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Iraundi-Hondarribia

Senior maila
Zapatua. 17:45. Kiroldegia

PALA TXAPELKETA

Osintxun

3. eta 4. postuak

- Etxaniz eta Irureta
 - Urigoitia eta Mancebo
- Zapatua. 16:00

Finala

- Andonegi eta Rico
 - Alberdi eta Agirrebeña
- Zapatua. 17:00

Eskizaleek laster izango dute elurretan gozatzeko aukera

Aurtengo denboraldia beranduago hasiko da

Eski denboraldiak aste batzuk barru irekiko dizkigu ateak. Aragoiko Pirinioetako estazioek hainbat bergarar izango dituzte asteburuero euren pistetan. Pol-Poleko eski saila da une honetan herrian kirol mota hau bultzatzen ari dena eta, ondorioz, bertako arduradunarekin, Andoni Larrañagarekin, hizketan jardun dugu, denboraldian zehar Pol-Polek egiten dituen irteeren eta eskiari dagokion antolakuntzaren berri jakiteko.



Aste Santuan Pol-Polek La Plagne-ra antolatutako irteeran izan ziren hainbat bergarar.

Duela 20 urte, Pol-Pol Mendizale Elkartearen baitan, eskizale talde batek eskia sustatzeko asmotan, Estatuko federazioarekin harremanetan jarri eta hainbat irteera antolatzen hasi zen. "Une honetan, Pol-Poleko eski saila federazioaren barruan dago. Hasiera batean, alpinoa eta iraupen-eskia ziren nagusi, baina une honetan eta jendearen interesa kontutan izanda, alpinoa eta snowboarda dira gure ardura nagusiak. Snowboarda gero eta arrakasta handiagoa izaten ari da. Dena dela, jende asko ari da iraupen-eskian".

Askok izan dira denbora luze honetan eskian nabarmendu izan diren bergararrak. Hauen artean, Iban Rodrigez (alpinoa), Agirrebeña anai-arrebak (alpinoa), Aitor Delarriberette (snowboarda) une honetan Espainiko selekzioarekin entrenatzen ari dena eta Ane Molina (snowboarda).

Pol-Pol eski sailak bideraturiko erraztasunak

Estatuko federazioarekin dauden harremanen ondorioz, Pol-Polen denboraldirako bono eta asteburuetako forfaitak merkeago lortzeko aukera dago. Bestalde, asteburuero Candanchu, Astun eta Formigalera irteerak antolatzen ditu. Aste Santuan, ostera, Alpeetara inguratzen dira: "Azken urteotan, Frantziako La Plagne, Tignes eta Val d'Iserren izan gara. Batzuetan, San Jose zubian ere antolatzen ditugu irteerak, normalean, Baqueira Beret edo Frantziako Pirinioetara".

Adin guztietara zabalik dagoen kirola da eta, gaur

egun, bergarar asko dira bonoak eta asteburuetako irteerarako izena ematen dutenak. Elurra izaten da arazo bakarra. Une honetan ez dago ia elurrik. Hori dela eta, aurtengo denboraldia beranduago hasiko da eta, ondorioz, motzagoa izango da. Hainbat estaziotako ar-

Estatuko federazioarekiko dauden harremanen ondorioz, bono eta forfait-ak merkeagoak dira Pol-Polen

duradunek esan digutenez pistetako langile gutxiago kontratatzeak asmoa dute denboraldia esan bezala motzagoa izango delako.

Eski materialen azoka

Denboraldiarekin batera, Pol-Polek eski eta mendi materialaren azoka txikia antolatzen du. Materialaren bilketa abenduaren 1etik 11ra egingo da, asteleheneetik ostiralera 19:00ak eta 20:30ak bitartean. Azoka berriz, abenduaren 14tik 19ra zabalduko da, asteazkenean zehar 19:00etatik 20:30etara eta zapatuetan 18:00etatik 20:00etara. Hainbat material erosi eta saldu ahal izango da. B

Realak abenduaren 16an Agorrosinen entrenatuko du

Realeko talde nagusiak, argazki eta poster ofizialaren aurkezpena egingo du Bergarako Udaletxeko Pleno Aretoan abenduaren 16an. Aurretik, Realak eguneroko entrenamendu saioa egingo du Agorrosinen, ordubete ingurukoa. Ondoren, Udaletxera hurbilduko dira eta aurkezpena egin eta gero, Donostiarantz abiatuko dira arratsaldean entrenatzeko. **B**



Azkenekoz, 1994ko urriaren 12an izan zen Real Agorrosinen.

Koadrilen arteko III. Olinpiada

Mankomunitateko

kirol zerbitzuek, Deba Garaiko Koadrilen arteko III. Olinpiada antolatu dute Oñatin. Jokatu diren kirolak hauek dira: igeriketa, esku pilota, hockeya, saskibaloia eta soka-tira. Izen ematea abenduaren 19a baino lehen egin behar da (4.000 pta). Irabazlearentzat 70.000 pezeta izango dira, bigarrenarentzat 35.000 eta hirugarrenarentzat 20.000.

Euskadiko karate selekzioa Bergaran



Euskadikoarekin batera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako karate selekzioak izan ziren zapatuan Bergaran egin zen entrenamenduan. Guztira 60 lagun inguru bildu ziren Migel Altuna institutuan. Bergarako ordezkariak Mikel Arakistain eta Pablo Peña izan ziren. Asteburuan, Mikel Arakistain, Hernanin jokatuko den kadete mailako Gipuzkoako txapelketan izango da. Lehendabiziko 4 postuen artean sailkatzea lortzen badu, Euskadiko txapelketan hartuko du parte, abenduaren 19an Laudion. **B**

Zorte txarra izan zuen Ariznoak zapatuan Labegaraietan

Joan zen zapatuan

Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Ligaren jardunaldia izan zen Labegaraietako Polikiroldegian. Jaione Igartuak izandako lesio baten ondorioz, Bergarako Ariznoa taldeak ezin izan zuen txapelketan parte hartu eta horrela, Helena Herrerosen aginduetara entrenatzen diren neskak sailkapenean puntuak lortzeko aukera barik gelditu dira.

Dena dela, Euskadiko Ligaren barruan izango diren beste jardunaldietan parte hartuko dute, esan bezala, sailkapenean aurreratzeko aukera barik geratu diren arren. Bihar, zapatua, Espainiako Ligari dago-kion Eibarreko jardunaldian izango dira estatu-ko beste hainbat talderekin batera. **B**

Tenis txapelketa Kiroldegian

Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatuta, abenduan tenis txapelketa jokatuko da Labegarieta kiroldegiko kanpoko kantxan. 20 jokalaritari arituko dira lehen.

Lehen kanporaketa, abenduaren 3a baino lehen jokatuko da eta horretarako tenislariak ados jarri beharra dute eguna eta ordua zehazteko.

ESKOLA KIROLA. Karteldegia

SASKIBALOIA

Benjamin maila:

10:30: Antzuola A-M Lagundia B

10:30: Aranzadi B-M Lagundia E

11:15: Aranzadi 1-M Lagundia A

11:15: Aranzadi 4-M Lagundia D

12:00: Aranzadi 2-Aranzadi 3

12:00: Aranzadi 5-Aranzadi 6

Denak Mariaren Lagundian

Infantil mailako mutilak:

11:00: Txantxi DBH2AM-Aranzadi

Zubikoa Kiroldegian

FUTBOLA

Infantil mailako mutilak:

10:00: Almen-Ipintza DBH

Almenen

Infantil mailako neskak:

10:15: Mercedes-Aranzadi

Atxabalpen

ESKUBALOIA

Infantil mailako neskak:

11:00: Aranzadi-Aozaraza 2

Labegaraietan

Infantil mailako mutilak:

09:30: Almen-Aranzadi

Almenen

PILOTA

Alebin mailako mutilak:

09:00: Aranzadi 10, M. Lagundia B, Aranzadi 13

10:00: Aranzadi 9, M Lagundia A, San Martin

11:00: Aranzadi 11, Aranzadi 12, Aranzadi 8

Alebin mailako neskak:

12:00: Aranzadi 14, San Martin

12:45: Aranzadi 15, M Lagundia

Denak Udal Pilotalekuan

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San Lorentzon. 943 76 21 63.

Aranerreaka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Aranerreaka. 943 76 52 17.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Aranerreaka. 910 091 861.

Erosi

Pisua erosiko genuke Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Bi neska pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun. Telefonoa: 943 76 56 03.

Deba Garaian baserria erosi edo errentan hartuko genuke. Deitu 943 71 47 56 telefonora (Antonio, gauetz).

Pisua hartuko genuke alokairuan. Telefonoa: 945 46 58 36.

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebukeratan). 943 76 50 46.

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neska haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 46 07.

Espereziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska bat edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gaixorak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 81.

Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko. 943 76 47 76.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Boni Lascurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Aranerreaka. 943 76 28 07.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Garajea salgai Kruz Ga-

llastegin. 943 76 27 61.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Ibargarai. 943 15 15 81.

S.-Antonio. 943 76 15 37.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

Errentan emateko

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 21 12.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokal komertziala herri er-

dian. 100-300 m2 bitartekoa. 943 79 11 71.

Erosi

40 m² inguruko biltegi edo baxua behar dugu. 945 14 17 84 (17:30-20:00).

Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 /76 37 80 (gauetz).

Rizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

BIZKOTIYOAK ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9. Telefono. 761051.

R.S.I. 209374-55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Xabier Dekorazioak

Eskaiola
Isolamenduak
Pladurezko lanak

Tf. 943 76 15 94

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 70 33 (gauetz).

Neska euskalduna behar da goizez haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 01 17.

Umea zaindu eta etxeko lanetarako pertsona bat behar da Antzuolan. 943 76 65 00.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Filolojia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Majisteriztan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak.

943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu. 943 76 03 83 (Dani).

Lizentziatu batek italierra klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. 943 76 65 24.

Eskaerak

Italiera klaseak jaso nahi nituzke. 943 76 64 14 (Eva).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia Climber 91 motorra salgai. Deitu 943 76 07 28 elefona (Ion).

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa 33 1.7 i (SS-AK). Aire egok. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Volkswagen Caravelle furgoneta (VI-M) salgai. 943 79 97 35.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Hispaniel-breton txakurkumeak. Deitu 943 76 71 94 telefonora (Pablo).

8. DENETARIK

Saldu

Holton tronpeta salgai, egoera onean (75.000 pezeta). 943 76 48 23.

Errepideko Zeus bizikleta. 58 neurrikoa, 25.000 pezeta. 907 34 46 58.

Edurretarako kateak Citroen AXerako. 943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Super Nintendoko jokuak eta mandoak salgai. 943 76 10 93.

Jaioberriarentzako kapota kotxea. 30.000 PTA. 943 76 15 40.

Snowboard taula eta fijazioak salgai. 1,52 m. neurrikoak. 45.000 pezeta. 943 76 15 35.

Kerosenozko estufa salgai. 943 76 02 92.

Edesa termo elektrikoa (30 l.). Ia berria, 10.000 PTA. 943 76 07 50 (Maite).

Erosi

Teklazko akordeoia erosiko genuke. 943 76 12 49.

Laminadun eta hankadun somierra (1,35 m.koa) erosiko nuke. 943 76 04 57.

Galdu

GAC bizikleta, more eta zuri kolorekoa, desagartu da Seminarioko patioan. 943 76 29 21.

Aurkitu

Bolan eraztun bat topatu dut. Begoña izena eta 23-3-90 fetxa du. 943 76 54 52 (Jone).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

TROKELISTA MONTATZAILEA
Deba Garaia. 12183/4

EROSKETETAKO AGENTEA
Bilbo. 14523/3

ELEKTROMEKANIKAKO MUNTAIETARAKO LANGILEA
Urola Kosta. 13135/5

INJINERU INFORMATIKO 2
Ibai eskuinaldea. 14534/3

SUKALDEKO ALTZARIEN SALTZAILEA
Errioxa. 13862/4

INJINERU TEKNIKO MEKANIKOA
Bilbo. 14538/1

SALTZAILE-DEKORATZAILEA
Arabako Lautada. 14297/6

INJINERU TEKNIKO INDUSTRIALA
Bilbo. 14565/3

FATXADA ETA TEILATUETARAKO 3 OFIZIAL
Bilbo. 14314/4

OPTIKO TITULUDUNA
Bilbo. 14676/2

3 PROMOTORE
ibai eskuinaldea. 14410/6

HARRERAGILEA
Donostia. 14678/2

JANGELAKO ARDURADUNA
markina. 13763/4

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



☎ 943 76 20 61

Enpresetan lan egiteko

HIZKUNTZ TEKNIKARIAK

behar ditu

EMUN KOOP. E.k

Enpresen ezagutza baloratuko da.

Interesatuok bidali curriculum vitae eta argazki bat, abenduaren 4a baino lehen Arrasateko 227 posta-kutxara.

Santa Marina parrokia zapatuan zabalduko da

Erretaula nagusia konpontzeke dago hasieran uste baino hondatuago baitago

Santa Marina eliza zapatu honetan zabalduko dute berriz ere bi hilabetez itxita egon ondoren. Halere, erretaula nagusia aldamiotz estalita aurkituko dute eliztarrek, hasieran pentsatutakoa baino konponketa sakonagoa behar baitu.

Santa Marina eliza irailaren 28an itxi zuten, erretaula nagusian eta egurrezko beste hainbat elementutan sitsaren kontrako neurriak hartu eta eliza osoa fumigatzeko. Hasierako asmoa Domu Santu egunerako zabaltzea bazen ere, urri eta azaro osoan zehar itxita izan da. Azkenean, zapatu honetan 19:00etan, zabalduko da eta asteburuan ohiko mezak emango dira.

Hasierako asmoa erretaula nagusia oso-osorik garbitzea zen eta horretarako aldamiotz estali zuten. Egurrean sitsak egindako zulotoxetan produktu kimikoak injektatzeko asmoa zuten eta erretaula nagusiko irudiak jaitsi eta 15



egunez argoi gasetan eduki xilofagoak akabatzeko.

Bestalde, elizaren zoruan, egurra dagoen tokietan, aulki guztietan, koruan dauden irudietan eta pulpitoan ere sitsaren kontrako produktu kimikoak erabili behar zituzten. Lan hauek egin dituzte, baina erretaula nagusian

ezin izan dute lanik egin. Arrazoa? hasieran uste baino zailtasun handiagoak aurkitu dituztela eta erretaula nagusia uste baino egoera kaskarragoan dagoela. Hasierako lan horien guztien aurrekontua 3 milioi pezetakoa zen, baina erretaula nagusian egin beharko diren konponketa lanak direla eta, aurrekontua asko haziko da. Une honetan txosten zehatza egiten ari dira aurrerantzean egin beharreko lanak zehazteko, aurrekontuak egin eta lehenbailehen Gipuzkoako Diputazioari aurkezteko.

Uste baino konponketa serioagoa

Aldamioak jarri eta erretaula nagusiaren egoera aztertzen ari zirenean ohartu ziren erretaula bere tokitik mugituta zegoela eta piskanaka-piskanaka aurrera zetorrela. Xabier Azkoitia Santa Marinako parrokoak esan digunez, "goialdean, kornisa inguruan, erretaula paretatik 120 zentimetro mugitu da".

Erretaula aurrera etorri da eta horren arrazoa ez ei da sitsak egurrean egindako kaltea. Honek egurra barrutik asko jan badu ere, arazoa egituraren eta honek eutsi behar duen pisuan ei dago. Egiturak bere oreka galdu du eta erretaula behera erortzeko arriskua ere egon daiteke. Horregatik, konponketa sakona eskatzen du. "Egunetik egunera ustekabe handiagoak hartzen ari gara. Eguaztenera arte, ez genekien erretaula barrura nondik sartzen zen, ez baitzegoen ez planorik, ezta inolako idatzirik eta soingainekoan erretaula zaharrari buruzko 1730. urteko idazki bat aurkitu dugu aste honetan. Eliz barrutiko artxi-bozainari emango diogu azter dezan" esan digu Xabier Azkoitiak. B



Santa Marinako erretaula nagusia ezin izan dute konpondu, uste baino okerrago dagoelako.

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

■ kronika

Orfeoikideak protagonista

Bergarako Orfeoia Santa Zezilia ospatu zuten

Bergarako Orfeoia eta Opus III Percussion Ensemble taldearentzat egun luzea izan zen Santa Zezilia bezperakoa. Arratsaldean haur eta gaztetxoen kontzertu didaktikoa eman zuten Udal Pilotalekuan. Gauean, berriz, Orfeoiko kide izandakoak omentzeko emanaldi ederra eskaini zuten.

Bi emanaldiak jendetsuak eta arrakastatsuak izan ziren. Arratsaldekoan, haurrek, ausartenek, Opus III perkusio taldea zuzentzeko aukera ere izan zuten, Jesus J. Soldevillak bere batuta laga baitzien. Bestalde, David Azurzak Orfeoia eta, orokorrean, abesbatzen nondik-norakoak azaldu zizkien gaztetxoei.

Gaueko emanaldia erabat arrakastatsua izan zen. Frontoiko behealdeko eserleku guztiak, errebotekoak izan ezik, bete ziren. Orfeoia eta Opus IIIk, aurten udaberrian Miramonen eskaintako emanaldiko egitaraua aukeratu zuten zapatu gauerako. Errepertorio ezaguna, alai eta erraz jarraitzeko modukoa. Ikusleria gustora geratu zen.

Bergarako Orfeoia, bertako kide izan direnak eta Orfeoia 75

urtetan izan dituen zuzendariak omentzeko aukeratu zuten kontzertua. Roman Oiartzabal, lehen zuzendaria izandakoaren bilobak, Miguel Gonzalez Bastidak, Jesus Berroiak eta Kristina Larrañagak Rikardo Azkargortak 75. urteurrenerako egin duen margoaren erreproduzio bana jaso zuten. Amaieran, bestalde, Orfeoiko kide izandakoek eskenatokira agertu eta Orfeoia-kin eta Opus III taldearekin batera, "Haurtxoa seaskan" kantatu zuten. B



Jesus J. Soldevilla haurrekin. Behean, Orfeoiko zuzendari ohia.

"Zabaldu", Bergarako aldizkari alternatiboa

Aste batzuk dela kalean da herriko gazte talde batek bultzatutako "Zabaldu" izeneko fanzinea. Bergarako aldizkari alternatiboa bezala aurkeztu du bere burua eta asmoa, "gazteak eta ez hain gazteak erlazionatzea eta informatuak egotea da. Adierazpen askatasuna bultzatuz eta gauzatuz. Hain zuzen ere, esparru honetan eskasia nabarmena aurkitzen dugu; pasibotasunetik aktibotasunera doan zubia eratzea da gure helburua". Lehen alean honako gaiet buruzko artikulua irakur daitezke: Egin egunkaria, komunikabideak, Gaztetxea, etxebizitzak Bergaran, Eibar-Gasteiz autopista eta Abiadura Handiko Trena, presoak eta hauen senideak bizi duten egoera edota elikagaiak. Bestalde, Assholes musika taldeari egindako elkarrizketa eta zenbait poesia eta ipuin ere jasotzen dira; baita presondegi-graduak buruzko artikulua eta Bergarako preso politikoen helbideak.

Inprentan 1.500 ale bota dituzte eta herriko hainbat tabernatan eskuratu daiteke. Fanzinea eskuratu daitezkeen tokietan itzulapiko batzuk jarri dituzte nahi duenak borondatea bota dezan. Aldikotasuna zehaztu barik daukate eta "zenbat eta jende gehiagok idatzi hainbat eta lehena go beteko dira orriak". Dena dela, Gabonetarako bigarren alea argitaratu nahi dute. Edonork du aukera bertan idazteko. Beraz, jendearen borondatearen eta idazteko gogoaren arabera argitaratuko dituzte hurrengo zenbakiak.

Zabaldu fanzinea DIN A5 neurrikoa da eta 28 orrialde ditu. Euskaraz eta gazteleraz idatzita dago.

CAMACHO
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

PB

PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrea 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Nahigabeak. 2. Maitatua izan dadin merezi duena. 3. Alderantziz, musika nota. Seguruak. 4. Gura. Röntgen. Emakume izena. 5. Bihi. Esperoan. Kontsonantea. 6. Indiako hiri ezaguna. Ukana. 7. Zamorako ibilgailuetan. Edari alkoholoduna. Bokala. 8. Barre. Sosa. 9. Udare hitzaren kontsonanteak. Nafarroako udalerria. 10. Hegazti-mota. Kasik.

Goitik behera

1. Amino talde bat duten azido organikoen jenero izena. 2. Penagarri. 3. Musika nota. Leku horretan. Kontsonantea. Berrogeita hamar. 4. Bi egun barru. Izpiritua. 5. Portu. Azkenekoa. Oxigenoa. Erbioa. 6. Aguraingo. 7. Edaritegi. Intsektu bizkarroia. 8. Esana. Rutenioa. 9. Fruitu-mota. Niri. 10. Katilua. Gipuzkoako herria.

Soluzioa

10. Kikara. Aia.
9. Aran. Neuri.
7. Bar. Izaina. 8. Errana. Ru.
5. Kai. Z. O. Er. 6. Aguraindar.
3. Si. Hor. R. L. 4. Ezi. Arima.
1. Aminoazido. 2. Tamalgari.
Goitik behera
9. Dr. Meanuri. 10. Ollarra. Ia.
7. Za. Hona. E. 8. Irri. Dirua.
5. Oio. Zain. R. 6. Agra. Izana.
3. Im. Zurrak. 4. Nah. R. Ana.
1. Aisekabeak. 2. Matlagari.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Iturri honen atzealdeko eskailleratetik gora igota XVI. mendeko zein jauregiarekin eginten da topo?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Artekale** pizzeria-jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Dorleta Areitio**rentzat izan da: Antzuolako Arin jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Dorletari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Artzamendi kalea** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonia: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



Artekalea 1, BERGARA
Tf. 943 76 72 00

Maisua dugu mus kontuetan; zapatuan bere bosgarren txapela lortu zuen elkar-teen arteko txapelketan, Pertxarekin. 14 urterekin aitari laguntzen garraiolari lanetan hasi zen zaldia eta karroarekin eta gaur egun kamioiarekin lanean ari da.

Zeinek erakutsi zizun musean?

Koadrilan ikasi genuen, oso gaztetatik.

Zer behar da muslari ona izateko?

Pazientzia igual...

Zortzi erregetako ala 10 erregetakoa?

Zortzikoan jokatu izan dut beti.

Karta txarrekin irabazi daiteke?

Keinuekin bai, baina bestela, nekez.

Keinurik bai?

Nik sekula ere ez...

Karta onenak zeintzuk?

Tanteoa zela doan. Batzuetan 31 eskutan dupleak baino hobea da.

Farolik bai?

Ez, normalean ez.

Hordagoak ala puntuz puntu?

Oena hordagoa irabaztea, lehenago amaitzeko.

Karta jokoan maniarik baduzu?

Ez.

Zein da zure bikotea?

Aurten, Jose Mari Perez baina urtetan Vidal Kareaga izan da. Zapatuan lehenengo berarekin akordatu nintzen.

Kartetan jokatzeko momenturik onena?

Zapatu arratsaldeetan jokatzeko dut.

Non jokatzeko gustorago?

Pertxan. Lehen Gasparren eta Lonbiden ere ibiltzen ginen.

Musaz aparte, beste karta jokorik?

Musean eta tutean bizi guztian.

Jesus Kalboetxeaga

Gustatzen ez zaizun bat?

Julepea.

Pertxan denbora asko ematen duzu?

Aste guztian zapaldu ere ez. Eguakitz eta zapatueta bai.

Sukaldari ona zara?

Txarra!!

Janari bat?

Bakailaua saltsa berdean. Ni gutxi jatekoa naiz, baina mutur fina.

Gustatzen ez zaizun bat?

Azelgak.

Kamioiarekin zenbat kilometro?

Asko. 1960 urtetik hona...

Zenbat kamioi izan dituzu?

Bost. Oena oraingoa, Nissan 140.17a.

Ibilbiderik luzeena nora?

Euskal Herrian ibiltzen naiz bakarrik. Bidaiarik luzeena Tuterara.

Puntuatu inguruko errepideak.

1etik 10era, 6-7 tartean.

Afizio bat?

Futbola, pilota ere bai...

Eugi ala Beloki?

Berdin zidan zeinek irabazten zuen.

Futbol talde bat?

Realzalea, %100ean.

Zer egingo du UEFAN?

Ez du erraz baina edozer gauza...





Inaugurazioa:
abenduaren leian,
19:30etan

Estilistak

-  estentsioak-
-  makilajea-
-  fantasia koloreak-
-  solariuma-
-  eta abar

Espoloia 4, behea.
Bergara
Tf. 943 76 72 76

ZUBI-BERRI

JATETXEA

San Anton auzoa, Bergara

Santa Luzia
bezperarako
menu berezia

Xanpaina gure kontura!



**Eskatu lekua lehenbailehen
943 76 41 06ra deituz**



Karta txapelketa, 1980 inguruan

Joan zen zapatuan elkarteen arteko karta txapelketaren 30. edizioko finalak jokatu ziren Santa Ana elkartean eta Pertxak txapelaldun kopa irabazi zuen 5. aldiz. Kartena tradizio handiko txapelketa dugu herrian eta hori frogatzeko goiko argazkia ikus dezakezue.

Erretratua 1970ko hamakardaren amaiera ingurukoa da eta bertan Peña Kikio, Hermandad Pertxa edota Elorregiko elkarteko jokalaririk ikus ditzakezue. Egia esan, orduan partaidetza gaur baino handiagoa izaten zen eta finalera heltzeko bidea luze samarra ei zen. Orain bezala, neurketak tutean, zortzi erregetako musean eta 10 erregetakoan jokatzen ziren, elkarte bakoitzak hiru bikote aurkeztuz. Antza denez, urte hartan Hermandad Pertxak

lortu zuen garaipena. Euren aurpegia ikusi besterik ez dago... Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Pello Garitano, Luis Larrañaga "Kikio", Etxaniz, Iñazio Alkorta, Luis Mari Basterra, Gabilondo "Basarte", Aretxaga, Julian Alzelai, Regino Valle eta Nartxi Begiristain.

Makurtuta goian: Patricio Larrañaga, Osa, Juan Egaña (koparen atzean), Migel Lazkano, Jesus Maria Eguren, Iñazio Garitano eta Juan Luis Aspiazu "Txistu".

Aurre-aurrean: Kapaña, Luis Mari Egaña, Pedro Egaña, Agustin Albisua, Jose Maria Igarua eta Alejandro Arroyo.

Argazkia: Pertxa elkarte

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Hi. Hirekin.



Kutxa batean aurkitzea espero duzun guztia (eta inoiz uste izango ez zenukeena) GazteKutxan aurkituko duzu. Zure egitasmoak, lana, ikasketak, trebakuntza, aisialdia... Gaztea izanik ere, zeure buruaren eta zeure diruaren jabe izateko garaia ere bai baituzu. Eta horretan laguntzeko prest ari gaituzu lanean gu beti. Estilo berri bat hartu nahirik, proposamen berriak ekarriz eta gugandik espero duzun guztia sortuz. Zeuk erabaki.




www.gazteKutxa.net

Hi. Hirekin.
gazte kutxa
Tú. Contigo.

Angiozar

Ubera



San Prudentzio

Mekolaide Osintxu

Zaborra

Behar den unean

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 79 33 99

